

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abenduaren 18a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Gizarte zerbitzuei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Jokoari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Foru Lege proiektua, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (44. or.).
- Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (45. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, Tafallatik Zangozara doan NA-132 errepideko AP-15 autobiderako lotuneari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (46. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Gizarte zerbitzuei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

I.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluen 17. eta 18. idatz-zatien bidez emandako eskumenez baliatuz, Nafarroako Parlamentuak, 1983. urtean, Gizarte Zerbitzuen martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen, Espainiako Konstituzioan, 9., 14., 39., 40., 49. eta 50. artikuluetan, arlo honetarako jasotzen diren agindu eta printzipioak garatzeko arau aitizindaria.

Foru lege hark, garai hartan aldarrikatutako gainerako lege autonomikoen bezala, printzipio adierazpen eta agindu orokorrak jaso zituen, baina bide eman du iragan diren hogeitau urte hauetan aurrerapen nabarmena gertatzeko gizarte gaietako politiketan; izan ere, gizarte babes publikoko zenbait ekintza jarri dira abian, pertsonak eta taldeak garatzen lagundu, gabeziei aurre egin eta gizarte bazterkeria eragiten duten faktore eta egoerak arintzeko xedeekin.

9/1983 Foru Legea beste lege batez osatu zen: azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legeaz hain zuzen, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa, zerbitzu horietan gutxieneko kalitate zerbitzua bermatzeko helburua zuena.

Baina arau horien abiapuntuan –gainerako autonomia erkidegoetako kasuan ere bai– gizarte zerbitzuei buruzko ideia laguntzarekin zegoen lotuta, eta horren arabera herritarrek ez lukete egiazko eskubiderik euren bizi kalitatea hobetzeko eta Konstituzioak babesten duen ongizaterako behar dituzten zerbitzuak eskuratzeko. Horrez gain, zerbitzu berriak abiarazi eta daudenak modernizatu izanak eta aldaketa sozialaren dinamikak agerian utzi dituzte foru lege horien gabeziak, bereziki honakoei dagokienez: gizarte zerbitzuen sistemaren definizio kontzeptuala eta ezaugarriak, horien antolaketa, egituraketa eta finantzaketa, prestazio motak ezartzea, eskumenak mugatzea eta gaiarekin lotura duten eragile guztien artean beharrezkoa den koordinazioa.

II.

Hori dela eta, ezinbestekoa zen, gizarte zerbitzuei baliatzeko aukeraren unibertsaltasuna aitortuko duen arau baten bidez, arautze berriari ekitea, bi ikuspuntuekin: bata, egungo errealitateari erantzun beharko diola, eta bestea, aurrerapausoak eman beharko dituela osasun, hezkuntza eta pensio sistema nazionalarekin batera ongizate estatuaren zutabetzat jo dena, laugarrena alegia, lortzeko bidean. Horrenbestez, foru legeak aurrenekoz aurreikusten du zerbitzu zorroak onestea, eta bertan jasoko da herritarrek zer prestaziotarako eskubidea izanen duten; eskubide hori subjektiboa izanen da, herritarrek prestazioak bete behar dituzten administrazioei eskatuko diete eta, ezinbestean, auzitegietan, eta horrek, beraz, laguntza-izaera kentzen die gizarte zerbitzuei. Horrez gain, homogeneizaziorako elementuak ezarri dira Nafarroako Foru Komunitate osoan, Nafarroako herritarrei gutxieneko prestazioak eta zerbitzuen kalitate baldintza oinarritzkoak bermatzeko, zein herritan bizi diren edo prestazioa non jasotzen duten kontuan izan gabe. Foru legearen beste asmo bat da gizarte zerbitzuak berrantolatzeari ekitea, gizarte zerbitzuen oinarritzko eskualdeak eta gizarte zerbi-

tzuen barrutiak bereiziz. Gizarte zerbitzuetako zentroak oinarrizko osasun laguntza hobetzeko asmoarekin sortutako egitura berria dira, eta barruti horiek izanen dituzte, hain zuzen, jardun esparru.

Onetsiko den arau honek planifikazioaren aldeko apustu garbia egiten du, Nafarroako administrazio publikoen erantzukizuna baita; izan ere, planifikatzea funtsezkotzat jotzen da jarduketa antolatu eta koordinatuak lortu eta, horrela, politika eraginkor eta efizienteak gauzatu ahal izateko. Apustu egiten du, halaber, herritarren partaidetzaren alde, gizarte eragileak, zerbitzuen erabiltzaileak eta biztanleak, oro har, gizartearen beharrak hobekien transmititzen dutenak direlakoan; zerbitzuak betetzerakoan eragile anitzek parte hartzen dutela aitortzen du, botere publikoek herritarrei prestazioak bermatzeko erantzukizuna dutela ahortziz gabe, bai eta foru lege honen xede diren gizataldeak ordezkatzeko dituzten entitateen garrantzia ere. Azkenik, bultzada kualitatiboa eman nahi zaio zerbitzuen kalitatea hobetzeko ahaleginari, zerbitzuen ebaluazioak ezarri, horretarako zerbitzu horien alderdi funtzional eta materialak ez ezik erabiltzaileen gogobetetzea ere neurtzeko aukera emanen duten adierazle objektiboen bidez.

Familiaren eremuan izandako aldaketek eta emakumeak, azken hamarkadan, pixkanaka lan merkaturan sartzeak faktore berriak ekarri dituzte; egoera berri horrek, premia duten pertsonentzako prestazio egokiak ziurtatze aldera, gizarte zerbitzuen sistema tradizionalak ezinbestez berraztertzea dakar.

Herritarrei bitarteko eta zerbitzuak emateko marko egonkorra bermatu beharrak esparru horretan esku-hartzea ekarri behar du, gizarte babesaren eredu berria eratuko duen lege baten bidez, Nafarroako Foru Komunitateak ematen duen babesa hedatu eta osatuko duena eta, halaber, gizarte laguntza gizarte zerbitzuen erabiltzaileentzat benetako eskubide subjektibo bihurtuko duena.

Asmoa da, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuetako garapen berria eratzea, Espainiako Konstituzioak goratzen duen estatu sozialaren eredu bultzatuko duena, horretaz gain, asmoa ere bada botere publikoen konpromisoa lortzea, gizarte zerbitzuen sistema unibertsala, kalitatezkoa eta berme izanen duena gauzatzeko aldera behar diren baliabideak sustatu eta eman ditzaten.

Gizarte zerbitzuen gaineko arautzea eta baimenen araubidea (homologazio, arau-hauste eta zehapenena gehituta) foru lege bakar batean biltzea izan da legearen hautua, sistema osoa modu

globalean ulertzea eta aplikatzea errazten duela iritzita.

III.

Foru lege hau prestatzeko garaian, gure erki-degoan berria den partaidetzazko prozesua erabili da; bertan parte hartu dute teknikariek, entitateek, elkarteek, profesionalek, gizarte eragileek, unibertsitateek, herritarrek oro har eta arduradun politikoek, bai autonomia erkidegokoek bai toki entitateetakoek, gure iritziz funtsezkoa delako ahal den adostasun politiko eta sozial handiena bilatzea gizarte zerbitzuen bezalako gai zabalaren inguruan legeak egiteko garaian, gizartearen duten oihartzuna eta garrantzia kontuan harturik. Foru lege hau beraz Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuekin zerikusia duten eragileek egindako ekarpenak aintzat hartu eta txertatzeko ahalegin handi baten emaitza da.

Foru lege honek 95 artikulua ditu, 10 titulutan multzokatuak, eta, gainera, 10 xedapen gehigarri, 4 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta 5 azken xedapen.

IV.

Atariko tituluan xedapen orokorrak bildu dira, arauaren aplikazioa ekarriko dutenak, hala nola xedea, botere publikoek arlo honetan jomuga izan beharreko xedeak, aplikazio esparrua eta sistema gidatuko duten printzipioak. Printzipioei dagokienez, arauak berritasunak ekarriko ditu, gizarte zerbitzuek dagoen kontzeptzio berriaren isla. Estreina-koz, honako printzipioak jasotzen dira: elkartasuna, laguntza pertsonalizatua, normalizazioa, autonomia sustatzea, planifikazioko ebaluazioa, boluntarioen lanaren kalitatea eta sustapena. Horrez gain, definizio berria eman zaie unibertsaltasun eta berdintasun kontzeptuei. Unibertsaltasunaren printzipioa bilakatu egin da, eta gizarte zerbitzuak pertsonen eskubide subjektibotzat hartzera jotzen da orain. Berdin gertatzen da berdintasunaren printzipioarekin, arauaren xedeetako bat zehazten baitu, alegia pertsona guztiei prestazio homogeen gutxieneko maila bermatzea Nafarroako Foru Komunitate osoan, bizi diren herria edozein dela ere. Azkenik, atariko tituluan gizarte zerbitzuen sistemaren definizioa jaso da, prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatua, titularitate publiko nahiz pribatukoek.

V.

I. tituluan, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharren katalogoa bildu da; foru

legerian aurrenekoz egin da hori. Horrez gain, egoitzetako gizarte zerbitzuen erabiltzaileen esku-bide eta betebeharrak berariazkoak ere arautu dira.

II. tituluak gizarte zerbitzuen sistema publikoa arautzen du, foru legearen muina alegia, arauaren jomuga nagusia populazioaren gizarte ongizatea sustatzea baita, eta hau, berriz, erakunde publikoen erantzukizuna; titulu honetan jasotzen diren berritasunek ondorio garrantzitsuak izanen dituzte gizarte zerbitzuen arloan, haietako nagusia herritarrek zerbitzu horietarako duten eskubide subjektiboaren aitorpena.

Titulu honek bost kapitulu ditu. I. kapituluan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren definizioa jaso da; zerbitzuen sistemaz bestelakoa da, ematen diren zerbitzuen titularitatea publikoa delako hain zuzen, prestazioa zuzenean eman nahiz zeharka eman gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateen bitartez.

II. kapituluan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren parte diren elementuak arautu dira: prestazio tekniko eta ekonomikoak, planak, programak eta ekipo teknikoak. Kapitulu horretan aipatzen dira lehendabizikoz herritarrentzako prestazio bermatuak, eta beraz herritarrentzat egiazko eskubide subjektiboak sortzen dituztenak. Planei dagokienez, plan estrategikoen eta plan sektorialen arteko bereizketa egiten da, eta ezartzen horietako bakoitzak honakoak beharko dituela: txosten ekonomikoa, aplikatuko dela bermatzeko; aldizkako ebaluazioa; eta, prestatzeko garaian, partaidetzaren bermea. Bertan jaso da orobat programen definizioa eta sailkapena, eta azkenik, sistema publikoko profesionalek osatzen dituzten talde teknikoei buruzko aipamenak daude.

III. kapituluan arauaren berritasun nagusietako bat jaso da: gizarte zerbitzuen zorroak, non foru lege honen hartzaileek eskuratu ahalko dituzten zerbitzuak bilduko baitira. Lehenengo eta behin, gizarte zerbitzu orokorren zorroa arautzen da; Nafarroako Gobernuak onetsi beharko du, 20. artikuluan ezarritako gutxieneko edukiarekin, eta Nafarroako biztanle guztiei, bizi diren herria edozein izanik ere, emanen zaizkion gutxieneko zerbitzuak bildu beharko ditu. Bigarrenik, Nafarroako toki entitateek zorro hori osatzeko aukera aurreikusi da, zeinek bere lurraldean toki zerbitzuen zorroa onetsiz. Gizarte zerbitzuen zorroek itxuratuko dute herritarrek zerbitzuetarako duten eskubide subjektibo hori, zorroetan ezarriko baita bertan jasotako prestazioen izaera bermatua edo ez-bermatua den eta zein diren horiek eskuratzeko betebeharrak.

IV. kapituluak planifikazioa arautzen du berariaz, eta aipamen berezia egiten du Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoaz.

V. kapitulua gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egiturari buruzkoa da; lehenengo aldiz eskaintzen du lege maila duen arau batean gure erkidegoan dauden laguntza maila ezberdinen gaineko arautze osotua. Halatan, oinarrizko gizarte zerbitzuen edo oinarrizko laguntzako eta gizarte zerbitzu espezializatuen edo laguntza espezializatuen eginkizunak zehaztu eta ezartzen ditu. Bi berritasun garrantzitsu agertzen dira, gainera. Lehena, oinarrizko gizarte zerbitzu guztietan lau programa derrigorrez ezartzera behartzen du (harrera eta orientabide sozialerako programa, autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programa, oinarrizko laguntzako gizarteratze programa eta haur eta familientzako oinarrizko laguntzako laguntza programa), Nafarroako eremu guztietan laguntza homogenea izan dadin; ezarpena pixkanaka egiten da, populazioaren beharren arabera. Bigarrena, egitura berri bat sortzea aurreikusten da: gizarte zerbitzuetako zentroak. Zentro horiek oinarrizko laguntzari sostengu emateko zerbitzuak izanen dira, barrutian jardunen dute eta, salbu eta Iruñean edo plan estrategiko orokorretan ezarri ahal diren beste kasu batzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpe egonen dira.

VI.

III. tituluaren gaia eskumen eta antolaketaren araubidea da, eta hiru kapitulu ditu. I. kapituluan Nafarroako administrazio publikoaren eskumenak arautzen dira, bereizirik, batetik, Nafarroako Gobernuarenak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak, eta, bestetik, Nafarroako toki entitateenak. Toki autonomia errespetatuz, eskumen banaketa hori dezentrazioaren eta berdintasunaren printzipioetan oinarritzen da. Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen gain uzten ditu Nafarroako Foru Komunitate osoan herritarrei gutxieneko zerbitzuak bermatuko dizkieten eskumenak, eta toki entitateen gain, berriz, laguntza hurbilagoa izatea ekar dezaketen eskumenak, eta aukera ematen zaie bidenabar toki esparruko gizarte zerbitzuen zorroak egiteko.

II. kapituluan, aurrenekoz jaso da lege mailako arau batean Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen lurralde antolaketa, zenbait jarduketa esparru ezarriaz. Gizarte zerbitzuen eskualde oinarrizkoak izanen dira oinarrizko laguntzaren lurralde markoa, eta gizarte zerbitzuen barrutiek, oinarrizko laguntzako zerbitzuen eraginkortasuna hobetze

aldera, zenbait eskualde oinarrizko bilduko dituzte. Gizarte zerbitzu espezializatuen jarduketa esparruak ezarri dira, esparru orokorra eta toki esparrua, titularitatea Nafarroako Foru Komunitatearena edo toki entitateena izan, hurrenez hurren. Oinarrizko eskualdeen eta barrutien ezaugarri zehatzak erregelamenduz ezarriko dira.

III. kapituluan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren funtzionamendu egokirako alderdi funtsezko bat arautzen da, hau da, administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzak. Bereziki garrantzitsua da administrazio autonomikoaren eta toki administrazioaren arteko koordinaziorako aurrekusi den organoa, Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseilua, gizarte zerbitzuen politika publikoen koordinazioa errazteko eta dezentralizazio egokia bultzatzeko helburuak dituena.

VII.

IV. tituluan gizarte zerbitzuen sistema publikoaren finantzaketa arautzen da; horren ardura Nafarroako Gobernuarena eta toki entitateena da, baina beste finantza bide batzuk ere aurreikusten dira. Merezki du nabarmentzea foru legean adierazten dela prestazio bermatuak finantzatuko dituzten kredituak handitzeko modukoak izan behar direla, eta hala behar du, zorrotan halakotzat jotzen diren prestazioak izateko herritarrek duten eskubide subjektiboa ziurtatuko bada. Azpiegituren finantzaketaren gaiari ere heltzen zaio foru legean, eta gizarte zerbitzuen zentroen finantzaketa eta gizarte zerbitzu espezializatu eta oinarrizkoen finantzaketa, ezinbestez, plangintzarekin lotzen dira. Kontuan izan behar da, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa oinarrizko lau programekin eta horien gutxieneko edukiarekin loturik egonen dela, foru legeak gutxieneko zerbitzuak bermatzeko duen helburuarekin bat. Azken horien kasuan, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa oinarrizko lau programekin eta horien gutxieneko edukiarekin loturik egonen da, foru legeak gutxieneko zerbitzuak bermatzeko duen helburuarekin bat. Era berean, erabiltzaileek prestazio batzuen kostuan parte hartzeko aukera aurrekusi da, baina horrek ez du inoiz ere ekarriko zerbitzu bat ez jasotzea baliabide ekonomikorik ez izateagatik.

VIII.

V. tituluak, "Kontsulta eta partaidetza organoak" izenekoak, foru legea gidatzen duen beste printzipio bat du edukizat, herritarren partaidetza alegia, gizarte zerbitzuen arloan funtsezkotzat hartzen dena. Titulu horretan, partaidetzarako moduak arautzeaz gain, azpimarratzen da komeni dela foru

lege honetan erabili direnen antzeko partaidetza prozesuez baliatzea, araua garatu eta betearaziko duten arau, plan eta programak prestatzerakoan.

IX.

VI. tituluan aipamen berezia egiten da gizarte zerbitzuen profesionalez, eta erreferentziako profesionala ezartzen da: pertsonen eskubide bat da gizarte zerbitzuekiko, eta haren eginkizuna da pertsonari orientabideak eta laguntza ematea esku-hartze sozialeko prozesu osoan. Halaber aipatzen da esku-hartzeak lanbide artekoa izan behar duela, laguntza integrala izan dadin. Azkenik, titulu honetan profesional horien eskubide eta betebeharrak berariazkoak jasotzen dira, besteak beste, bat nabarmentzekotan, prestakuntza egokia jasotzea, ematen diren zerbitzuen kalitatea hobetzea ekarriko duena.

X.

Foru lege honen VII. titulua gizarte zerbitzuen arloan jarduten duen ekimen pribatuari buruzkoa da. Egungo errealitateak beharrezkoa egiten du eragile publiko eta pribatuek batera parte hartzea populazioaren behar sozialei erantzuten, azken erantzukizuna administrazio publikoena bada ere. Konstituzioan jasota dagoen berdintasun eta bereizkeria ezaren printzipioak eta Europako Erki-degoaren Itunean ezarritako lehia librearen printzipioak eskatzen dute arauaren testuan aurreikusten diren neurriek printzipio horiek ez urratzea, gizarte ekimeneko entitateek zeregin garrantzitsua dutela aitorturik ere.

Halatan, I. kapituluan, gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateei aplikatzekoak zaizkien xedapen orokorrak jasotzen dituen horretan, zerbitzuak sortu, mantendu, eman eta homologatzeko ahalmena dutela aitortzen da, betiere foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Baldintza horiek titulu honen II. kapituluan daude araututa, "Baimena eta erregistroa" izenekoan. Foru lege honek gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legean aurreikusten diren baimen administratiboetako bat edo batzuk eduki beharri eusten dio. Baina aurreko legerian ez bezala, baimenak eman eta gordetzeko ez da soilik kontuan hartuko, azpiegituraren eta zerbitzuaren baldintzei, ratioei eta langileen titulazioari eta zenbait dokumentaziori dagozkien gutxieneko baldintza batzuk betetzea, horri guztiari kalitate estandarrak ere bete beharra gehituko baitzaio. Estandar horiek adierazle objektibo-

tan oinarriturik neurtuko dira, eta bide eman beharko dute zerbitzuen kalitate maila eta, finean, erabiltzaileen gogobetetzea hobetzeko.

Kapitulu horretan erregistroko jarduera ere arautzen da, eta aurreko Entitate, Zerbitzu eta Zentroen Erregistroaren ordezkari Gizarte Zerbitzuen Erregistroa sortu da, herritarrek gure foru erkidegoan dauden gizarte zerbitzuen ezagutza hobea izan dezaten lagunduko duena. Orobat, gizarte zerbitzuen sistemaren parte ez diren baina foru lege honen aplikazio esparruan sartzen diren jarduera berariazko batzuetarako baimena eta erregistroa arautzen dira.

Zerbitzuak, bai titularitate pribatukoak bai titularitate publikoak, homologatzeko eta, beraz, gizarte zerbitzuen sistema publikoan sartzeko baldintzak III. kapituluaren daude ezarririk. Homologazio administratiboa arauaren beste berritasun bat da, zerbitzuen kalitatearen aldeko apustua indartzeko ezarria. Baldintza horien artean adierazle objektiboen bitartez ebaluaturiko kalitate estandarrek ere egon behar dira, enpleguko kalitatea eta antzeko irizpideekin batera.

XI.

VIII. titulua gizarte zerbitzuen kalitateaz mintzaten da berariaz, eta zenbait neurri ezartzen ditu hura hobetzeko, besteak beste Nafarroako Gobernuari ezartzen dion betebeharra, lau urterik behin kalitate plan bat egitea alegia.

XII.

Azkenik, ikuskapena eta zehapen araubidea da IX. tituluaren gaia, foru legea betetzen dela ziurtatzeko ezinbesteko tresnak baitira. Bi kapitulu ditu, lehena ikuskapenari buruzkoa, eta bigarrena zehapen araubideari buruzkoa. Ikuskapenaren esku-mena gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuaren gain egon behar da. Bigarren kapituluaren asmoa da ezarri beharreko zehapenak indartzea, zenbatekoa igoz, batez ere arau-hauste oso larriei dagozkienak, eta hertsapeneko isunak jarri eta kautelazko neurriak hartzeko aukera aurreikustea, zerbitzuak herritarrentzako behar bezalako bermeak izanik eman daitezela.

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xede nagusia da populazioaren gizarte ongizatea lortzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz.

2. Foru lege honen xedea Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen sistema itxuratzea da, halako moduan non bermatuko baita zerbitzuak pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea ziurtatuko dituzten baldintza onenetan ematen direla.

3. Azkenik, foru lege honen beste xede bat da bideak ezartzea gizarte zerbitzuen arloko jarduketara publikoak koordinatzeko gizarte politikaren gainerako arloekin eta ekimen pribatuko jarduketekin, pertsonen beharrei erantzuten dieten gizarte zerbitzuak lortzeko.

2. artikulua. Gizarte zerbitzuen arloko politiken helburuak.

Gizarte zerbitzuen arloan botere publikoek bete beharreko jarduketaren helburu nagusiak hauexek izan behar dira:

a) Pertsona guztien bizi kalitatea hobetu eta haien normalizazio, partaidetza eta integrazioa sustatzea arlo guztietan: gizartean, ekonomian, politikan, lan munduan, kulturen eta hezkuntzan.

b) Autonomia pertsonala, familiarra eta taldeena sustatzea.

c) Pertsonen eta gizataldeen bizikidetzaren alde egitea.

d) Kohesio soziala eta elkartasuna sustatzea.

e) Pertsonen eta taldeen bazterketa-egoerei aurrea hartu eta haietaz arduratzea.

f) Menpekotasunak eta oinarritzko baliabide faltak eragindako premiei erantzutea.

g) Gizarteak behar sozialak konpontzen parte har dezaten bultzatzea, batez ere gizatalde behartsuenak ordezkatzeko dituzten entitateenak.

h) Gizarte ongizatearen arloan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ezabatzea, plan eta programak taxutu eta betetzean genero ikuspuntua aintzat hartuz.

i) Gizarte zerbitzuekin zerikusia duten lanbideen etika kodeetan esku-hartze sozialari dagokionez jasorik dauden printzipio etikoak errespetatzen direla begiratzea.

3. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema.

1. Gizarte zerbitzuen sistema titularitate publiko eta pribatuko prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatzen dute.

2. Gizarte zerbitzuen sistemak modu integratu eta sarean koordinaturik jardunen du, foru lege

honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako arau markoarekin bat.

4. artikulua. Gizarte zerbitzuen hartzaileak.

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetako nazionalitatea izan eta Nafarroako edozein udal-tan erroldaturik dauden guztiak eta Nafarroan erroldaturik dauden atzerritarrak izanen dira foru lege honetan ezarritako gizarte zerbitzuen sistemaz baliatzeko eskubidearen titularrak.

2. Gizarte zerbitzuen sistemaz baliatu ahalko dira halaber Nafarroan dauden erbestera-errefuxiatuak edo aberri-gabeak, legeria indardun- eta nazioarteko itun nahiz hitzarmenetan ezarritakoarekin bat edo, horrelakorik ezean, elkarrekiko-tasun printzipioaren arabera.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoak ez du eragotziko baldintza osagarriak bete behar izatea prestazio jakin batzuen kasuan, horiek arautu edo ezartzen dituzten xedapenetan hala zehazten bada.

4. Nolanahi ere, Nafarroan pobrezia, egoera pertsonal, familiar edo sozial larrian diren pertsonak baliatu ahalko dira gizarte zerbitzuen sistemaren barrenean egoera horri erantzuteko bide ematen duten prestazioez. Gizarte zerbitzuetako profesionalak baloratuko dute egoera hori, larritasunaren, prekaritatearen eta presaren arabera.

5. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema gidatzen duten printzipioak.

Gizarte zerbitzuen sistemak printzipio hauen arabera jardunen du:

a) Unibertsaltasuna: botere publikoek bermatuko dute gizarte zerbitzuez baliatzeko biztanle guztiek duten eskubidea, berdintasun, ekitate eta birbanaketaren zuzentasun irizpideen arabera; halere, zenbait zerbitzu zehatzez baliatzeko bete beharreko baldintza bereziak ezarri ahalko dira.

b) Erantzukizun publikoa: botere publikoek gizarte zerbitzuen eskuragarritasuna bermatu beharko dute, sistemaren funtzionamendurako eta koordinaziorako beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta finantzarioak arautuz eta jarritz.

c) Berdintasuna: Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan gutxieneko prestazio homogeneous egotea bermatu beharko du.

d) Elkartasuna: botere publikoen jarduketek populazioaren kohesio sozialari laguntzera jo beharko dute, eta pertsonen arteko desberdintasu-

nak errespetatzea eta onartzea bultzatu, bizikidetzaren harmoniatsua izan dadin.

e) Hurbiltasuna eta decentralizazioa: gizarte zerbitzuak pertsonengandik ahalik eta hurbilen eman beharko dira, kontuan harturik haien izaera eta ezaugarriak.

f) Herritarren partaidetza: botere publikoek pertsonak, taldeak eta entitateak sistemaren funtzionamenduan parte har dezaten sustatu eta bermatu beharko dute.

g) Laguntza pertsonalizatua eta integrala: gizarte zerbitzuen sistemak erantzun integrala eman beharko die behar sozialei, behar horien berri izatea ahalbidetuko duen laguntza pertsonalizatuaren bidez.

h) Prebentzioa: gizarte zerbitzuen sistemak premia sozialeko egoerak gertatzeko arriskua saihestera bideratuko ditu batez ere bere jarduketak eta zerbitzuak.

i) Normalizazioa: gizarte zerbitzuen sistemaren lehenetsua izanen da pertsonak beraien ingurune sozial, familiar eta pertsonalean gelditzea, eta bermatzea erkidegoaren bizitzan parte har dezate- la, ahal delarik.

j) Autonomia sustatzea: gizarte zerbitzuen sistema lagungarria izanen da pertsonak behar den gaitasuna bereganatu dezaten norberaren bizimodu- ari buruzko erabaki pertsonalak hartzeko eta lehenetsunak hautatzeko, baita beste arlo batzue- tan (gizartean, politikan, ekonomian, lanean, kultu- ran, hezkuntzan) parte hartzeko eta moldatzeko.

k) Planifikazioa eta ebaluazioa: botere publiko- ek ordenan planifikatu beharko dituzte gizarte zer- bitzuen esparruan jarraitu beharreko jomugak, estrategiak, politikak eta jarraibideak, bai eta arazo sozialen eta horiek eragiten dituzten arrazoien berri izateko erabili behar diren bideak eta ekin- tzak ere, aldizkako ebaluazioaren arabera egoki diren aldaketak ezarritz.

l) Administrazioen arteko koordinazioa eta lan- kidetza: botere publikoek ziurtatu beharko dute gizarte zerbitzuen sistemaren berdintasuna, eta ahal den efizientzia eta eraginkortasun handienez funtzionatzen duela, horretarako haien arteko eta ekimen pribatuarekiko koordinazio eta lankidetzaren bidez bultzatuz.

m) Kalitatea: Nafarroako Gobernuak bermatuko du gutxieneko kalitate estandarrik izatea gizarte zerbitzuen sistemari, eta estandar horiek hobetzea sustatuko du.

n) Boluntarioen lanaren sustapena: botere publikoek herritarren elkartasunezko lankidetzaren

sustatuko dute gizarte zerbitzuen esparruan, boluntarioen elkarleen parte-hartzearen bitartez, betiere, parte-hartze horrek ekartzen ez badu behar diren zerbitzu profesionalak ordezkatzeko.

I. TITULUA

Eskubideak eta betebeharrak

6. artikulua. Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak.

Gizarte zerbitzuen hartzaileek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Gizarte zerbitzuez berdintasunez baliatzeko eskubidea, bereizkeriarik eragin gabe zerbitzuen hartzailearen jaioterriak, hizkuntzak, etniak, sexuak, joera sexualak, egoera zibilak, egoera familiarak, adinak, ezgaitasunak, erlijioak, ideologiak, iritziak edo beste edozein baldintza pertsonalek edo sozialek.

b) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz baliatzeko bete behar diren baldintzei buruz behar adinako informazio egiazkoa modu ulergarrian jasotzeko eskubidea, bai eta babes sozialeko beste baliabide batzuei eta arlo horretan administrazio publikoek dituzten eskumenei buruz ere.

c) Norberaren egoerari buruzko balorazioa eta, behar denean, behar sozialen balorazioa ere idatziz eta hizkera argi eta ulergarrian jakiteko eskubidea.

d) Norberaren egoeraren balorazioarekin bat heldu den banakako laguntza pertsonal edo/eta familiarerako plan bat edukitzeko eskubidea.

e) Esku-hartze sozialeko prozesuari buruzko erabakietan parte hartzeko eskubidea, bai eta administrazio publikoek aurkeztutako aukeren artean prestazioak hautatzeko ere.

f) Hartzaileari eraginen dion edozein esku-hartzeri buruz aldeztu aurretik informazioa jasotzeko eskubidea, baimen berariazkoa eta librea eman ahal izateko. Baimena idatzizkoa izan beharko da esku-hartzeak egoitza batean sartzea dakarrenean. Gaitasunik ez duten pertsonen eta adingabeen baimena lege ezarritako prozedurari jarraituz emanen da.

g) Legeria indardunean ezarritakoari jarraituz emandako prestazioei eta zerbitzuei uko egiteko eskubidea.

h) Gizarte zerbitzuek duten informazioa konfidentziala izateko eskubidea.

i) Banakako espedientea uneoro ikusteko eskubidea, lege indardunetan ezarritakoarekin bat.

j) Erreferentziako profesional bat esleitu eta libreki hautatzeko eskubidea, arauetan ezarritako moduan.

k) Foru lege honen V. tituluaren araututako partaidetzarako eskubidea.

l) Kalitateko zerbitzuak jaso eta horretarako ezarriak diren estandarren berri izateko eskubidea.

m) Iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea.

7. artikulua. Gizarte zerbitzuen hartzaileen betebeharrak.

Gizarte zerbitzuen hartzaileek betebeharrak izanen dituzte:

a) Prestazio eta zerbitzuetan ezarritako arau, baldintza, betebeharrak eta prozedurak betetzea eta profesional eskudunek emandako laguntza programa eta orientabideen arabera jokatzeko, prozesuan parte-hartze aktiboa izateko konpromisoa hartuz.

b) Norberaren inguruabar pertsonal, familiar eta ekonomikoari buruzko informazio egiazkoa ematea, betiere hura ezagutzea beharrezkoa bada egoera baloratu eta laguntza emateko; horietan izaten diren aldaketak jakinaraztea.

c) Prestazioa, betiere, hura ematea eragin duen xederako erabiltzea.

d) Gizarte zerbitzuetako profesionalak deitzen dituzten elkarrizketetara joatea.

e) Zerbitzuaren kostua finantzatzen laguntzera, horretarako ahalmen ekonomikoa dutenean eta arauetan hala ezartzen denean.

f) Zerbitzuei buruzko arauetan ezartzen diren gainerako betebeharrak.

8. artikulua. Egoitzetako zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

1. Egoitzetako zerbitzuen erabiltzaileek, 6. artikuluan aitorturiko eskubideez gain, honako hauek ere izanen dituzte:

a) Askatasun indibidualaz baliatzeko eskubidea, zerbitzuan gelditu edo handik joateko, kontuan harturik lege indardunetan ezarritakoa.

b) Zerbitzuaren barne erregelamendua ezagutzeko eta haren kopia bat edukitzeko eskubidea.

c) Erabiltzaileek egoitzetako zerbitzuei buruz egiten diren aldizkako ebaluazioen emaitzak zehazten dituen txosten publiko bat, egoitzara sartu baino lehen, ezagutzeko eskubidea dute.

d) Laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, norberaren behar berariazkoen arabera, laguntza soziala, osasuneko, farmazeutikoa, hezkuntza eta kultura arloetako eta behar pertsonal guztiak bere baitan hartzen dituena, garapen egoia lortzeko.

e) Komunikazioak isilpekoak izateko eskubidea, epaileak ebazpen bidez kontrakoa xedatzen ez badu.

f) Eguneroko bizitzan intimitatea eta pribatutasuna izateko eskubidea, zerbitzuko langileen jarduketa eta esku-hartze protokoloetan jasoko dena.

g) Bizileku duen egoitza etxetzat hartzeko eskubidea, bai eta ingurune familiar eta sozialarekin harremanetan segitzeko ere.

h) Iradokizunak eta kexak jaso eta horien jarraipena eta ebazpena egiten dituen barne sistema batez baliatzeko eskubidea.

i) Bizilekua pertsonalizatzeko gauza pertsonalak edukitzeko eskubidea, gainerako pertsonen eskubideak errespetatuz.

j) Zentroko ohiko funtzionamenduari eraginen ez dioten praktika erlijiosoetarako eskubidea, betiere beste pertsonen askatasunari begirunea izanik.

k) Sendagileak agindu gabe eta gainbegiratu gabe immobilizazio edo murrizketa fisiko edo tratamendu farmakologikorik ez jasateko eskubidea, erabiltzailearen nahiz hirugarrenen segurtasun fisikorako arrisku berehalakorik ez badago. Azken kasu horretan, jarduketan justifikazioa beharko da, agiri bidezkoa, eta erabiltzailearen espedientean jasoko dira, arauetan ezartzen den moduan. Ministerio Fiskalari ere jakinaraziko zaizkio.

l) Jasotzen diren zerbitzuen prezioa jakiteko eskubidea eta, halakorik badago, ordaindu behar denarena.

m) Parte hartzeko eskubidea.

2. Egoitzen erabiltzaileek, aurreko artikuluan ezarritako betebeharez gain, honako hauek ere izanen dituzte:

a) Elkarrekiko begirunean, tolerantzia eta lan-kidetzan oinarrituriko jokaera izatea, zerbitzuan bizikidetzeta eta arazoak konpontzen laguntzeko.

b) Zerbitzuetako langileak eta haien eskubideak errespetatzea.

c) Instalazioak arduraz erabili eta zaintzea.

II. TITULUA

Gizarte zerbitzuen sistema publikoa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

9. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatzen dute.

2. Horretarako, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren sistemaren parte izanen dira administrazio publikoek zuzenean emandako zerbitzuak ez ezik gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateen bidez zeharka emandakoak ere.

II. KAPITULUA

Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren elementuak

10. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioen xedea foru lege honetan aurreikusitako helburuak lortzea izanen da.

2. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak teknikoak, ekonomikoak edo materialak izan daitezke.

11. artikulua. Prestazio teknikoak.

1. Prestazio teknikoak profesionalen taldeek pertsonari eta taldeei emandako zerbitzuak dira, prebentziorako, autonomia sustatzeko, laguntzeko eta haien ongizateaz eta bizi kalitateaz arduratzeko, batzuen nahiz besteen beharrak aintzat harturik.

2. Prestazio teknikoak bermatuak eta ez-bermatuak izan daitezke, titulu honen III. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

3. Erabiltzailearen etxean, ingurunean, ambulatioetan eta zentroetan eman ahalko dira, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean, eta, zentroetan emanaz gero, egunaz, gauaz, egoitza modura edo bestelakoetan.

12. artikulua. Prestazio ekonomikoak.

1. Foru lege honetan ezarritako markoan administrazio publikoek aitortzen dituzten diru xedapen guztiak prestazio ekonomikoak dira.

2. Prestazio ekonomikoak bermatuak eta ez-bermatuak izan daitezke, titulu honen III. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

3. Nafarroako administrazio publikoekin kontratu administratiboak eginak dituzten ekimen pribatuko entitateek ez dute haien dirulaguntzarik jasoko kontratu horietan espresuki jasotako zerbitzuak finantzatzeko.

13. artikulua. Prestazio materialak.

Prestazio materialak dira babesteko, osatzeko eta prestazio teknikoak laguntzeko baliabide ez-ekonomikoen multzoa, gizabanakoei, familiei eta taldeei zuzendua, haien eskubide sozialak bermatzeko xedez.

14. artikulua. Prestazio mistoak.

Prestazio mistoak dira osagarritasuna erdieste-ko asmoz prestazio teknikoak prestazio ekonomiko edo materialekin konbinatzeak sorturikoak.

15. artikulua. Gizarte zerbitzuen planak.

1. Gizarte zerbitzuen planak gizarte zerbitzuen esparruan erabiltzen diren antolamendu tresnak dira, sistemaren funtzionamenduan ahal den eraginkortasunik handiena lortzeko xedea dutenak; bertan islatzen dira botere publikoak aplikatu beharreko esku-hartze sozialeko politikak.

2. Gizarte zerbitzuen plan estrategikoak eta plan sektorialak hartuko dira halakotzat.

3. Plan guztiek genero eraginari buruzko ebaluazioa eta txosten ekonomikoa izan beharko dute, horrek ziurtatuko baitu planaren aplikazioa; aldizka aldaketak eginen dira helburuen ebaluazio sistematikoaren eta aplikazioaren jarraipenaren arabera.

4. Planak egiteko prozeduran bermatuta egon beharko du parte hartuko dutela plana betetzeko eskumena duten administrazioek eta foru lege honetan partaidetzarako edo/eta lankidetzarako aurreikusten diren organoek, horietako zeini dago-kion; plan sektorialen kasuan, planaren xede diren pertsona ukituen parte-hartzeak ere bermatuta beharko du.

16. artikulua. Gizarte zerbitzuen programak.

1. Gizarte zerbitzuen programak plan bat partzialki betetzeko tresnak dira; bertan zenbait jardura biltzen dira, nolabaiteko homogeneousunez antolatuta, planean aurreikusitako emaitzak erdi-esteko helburuarekin.

2. Gizarte zerbitzuetako programak oinarrizkoak edo erkidegokoak eta espezializatuak izan daitezke. Biak izan daitezke orokorrak nahiz tokikoak.

17. artikulua. Talde teknikoak.

1. Talde teknikoa sistemaren prestazio teknikoak eman edo prestazio ekonomikoak kudeatzen eta kontrolatzen dituzten profesionalen taldea da.

2. Talde teknikoak oinarrizkoak edo espezializatuak izan daitezke.

III. KAPITULUA
Gizarte zerbitzuen zorroak

18. artikulua. Kontzeptua.

Gizarte zerbitzuen zorroak gizarte zerbitzuen sistema publikoko prestazioak ezartzeko tresna dira.

19. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa.

1. Gizarte zerbitzu orokorren zorroan, gizarte zerbitzuen sistema publikoak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatzekoak dituen prestazioak zehaztuko dira.

2. Zorro horretan prestazio bermatuak egonen dira sartuta, ez-bermatuetatik bereizirik.

3. Prestazio bermatuak eskubide subjektibo gisa eskatu ahalgo dira zorroan bertan ezarritako moduan; bertan adieraziko da, halaber, horietako bakoitzaz baliatzeko baldintzak zein diren eta eskubide hori behin aitorturik zer epetan eskatu ahalgo den administrazioan. Administrazioak ez badu erantzuten, administrazioarekiko auzi-jurisdikziora jo ahalgo da.

4. Prestazio ez-bermatuak jasotzeko, zorroan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta aurrekontu-etan dagoen diruaren arabera jokatu da.

5. Zorroko prestazioen kostua ordaintzeko ekarpena egitea eskatu ahalgo da, baina hala dela adierazi beharko da zorroan.

6. Kostuen azterketa ekonomikoak eta prestazioak finantzatzeko modua ere jaso beharko dira zorroan.

20. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroan jaso beharreko gutxienezko edukia.

Edozein kasutan, gizarte zerbitzu orokorren zorroetan, gutxienez, honako prestazio hauek jaso beharko dira, eta prestazio bermatutzat joko dira, gainera:

a) Nahitaez ezarri beharreko oinarrizko gizarte zerbitzuetako lau programetan, foru lege honen 31. artikuluan adierazitakoetan, erregelamenduz jasotzen diren prestazioak.

Programa hauek, edonola ere, ondoko prestazioak jasoko dituzte:

Harrera eta orientabide sozialerako programan, honakoa: gizarte zerbitzuen sistemaren prestazio tekniko eta ekonomikoez eta babes sozialeko gainerako sistemem prestazioez baliatu ahal izatea.

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko programan, honakoa: udalak emandako etxez etxeko laguntza.

Oinarrizko laguntzako gizarteratze programan, honakoa: akonpainamendu soziala tokian tokiko gizarteratzean, gizarteratze akordioen bidez, alde arteko konpromiso-tresna gisa.

Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntzako programan, honakoak: foru legediak toki entitateei haurren eta gazteen arloan esleitutako eskumenen ondoriozkoak, horiek oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkienean.

Lau programetan, honako prestazio tekniko hauek: harrera, orientazioa, aholkularitza, balorazioa eta diagnostiko soziala edo/eta hezkuntza arlokoa.

b) Oinarrizko errentaren prestazioa.

c) Larrialdi sozialeko prestazioak oinarrizko premien betetzea bermatzera zuzendutako laguntza ekonomiko puntual edo noizbehinkakoak.

d) Menpekotasunaren arloko Estatuko legeetan gutxienekotzat jotzen diren prestazioak.

e) Gizartean babes gabe eta gatazka egoeran dauden haurrei laguntzeko prestazio teknikoak, esku-hartze plana detektatu, jaso, ikertu, baloratu, diagnostikatu eta ezartzearekin lotuak, sistema publikoak doan eman beharrekoak.

f) Aldi baterako ostaturia emateko baliabideak, esaterako larrialdietako zentroak eta harrera etxeak etxerik gabeko pertsonentzat, tratu txarrak edo sexu erasoak jasandako emakumeentzat, babes gabeko adingabeentzat.

g) Egoitza batean bizi ahal izatea, aldi baterako edo betiko, menpekotasun egoera, familia-gatazka egoera larria edo familia-ingurune ez-egokia dutela-eta bizitokian jarrai ez dezaketenen pertsonentzat.

21. artikulua. Tokiko gizarte zerbitzuen zorroak.

1. Nafarroako toki entitateek beraien gizarte zerbitzuen zorroak onetsi ahal dituzte, gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioen osagarri, eta horien aplikazio esparrua toki entitate horren lurraldea izan da.

2. Toki entitateen gizarte zerbitzuen zorroei 19. artikuluko 2., 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko zaie.

22. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren proiektua gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak egingen du, eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio foru dekretu bidez onets dezan.

23. artikulua. Tokiko gizarte zerbitzuen zorroak onestea.

Tokiko gizarte zerbitzuen zorroak kasuan kasu toki entitateak emandako ordenantzaren bidez onetsiko dira.

IV. KAPITULUA Planifikazioa

24. artikulua. Planifikazio orokorra.

1. Planifikazio orokorra Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak egingen du, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoen eta plan sektorial orokorren bidez.

2. Planifikazioaren xedea lurralde desorekak saihestea izan da, dauden baliabideak hobeki aprobetxatzeko, jarduketarako lehentasunak zehaztuz.

25. artikulua. Toki esparruko planifikazioa.

Toki entitateek beraien planifikazioa egin ahal dute, zein bere lurraldean planifikazio orokorren osagarri izan dadin, betiere hura errespetatuz; horretarako, tokiko plan estrategikoak eta plan sektorialak prestatuko dituzte.

26. artikulua. Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoa.

1. Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak gizarte zerbitzuen politikaren helburuak erdiesteko behar diren neurriak, baliabideak eta ekintzak antolatuko ditu, foru lege honetan ezarritakoarekin bat. Lau urteko indarraldia izan da.

2. Hauexek dira planaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko egoera soziala aztertzea, ematen diren zerbitzuak eta dagoen eskaera barne, gizona eta emakumei dagozkien datuak bereizirik, ahal delarik.

b) Jarraitu beharreko ildo estrategikoak, bete beharreko helburuak eta horiek erdiesteko gauzatu beharreko ekintzak ezartzea.

c) Jarduketa kronograma bat ezartzea eta horien ardura duten entitateak eta organoak zehaztea.

d) Plan estrategikoan jasotako programa guztiak ebaluatzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema ezartzea. Ebaluazioa urtero eginen da eta ondoren txosten publiko bat ekarriko du, toki entitateen, erabiltzaileen eta, oro har, herritar guztien eskueran egon beharko dena.

27. artikulua. Plan sektorial orokorrak.

Plan sektorial orokorrek gizarte zerbitzuen plan estrategikoen aurreikuspenak garatuko dituzte zenbait egoera sozialetan, populazioa ikuspegi sektorialarekin begiratuta. Zeharkako izaera eta urte anitzeko indarra izanen dute; halaber, behatokiak sortzea aurreikusi ahalko da bertan.

V. KAPITULUA

Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egitura

28. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egitura.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egiturak bi maila ditu: oinarrizko gizarte zerbitzuak edo oinarrizko laguntzakoak eta gizarte zerbitzu espezializatuak edo laguntza espezializatukoak.

29. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea dira, sisteman sartzeko atea eta hartzaileengandik eta esparru familiar eta sozialetik gertuen dagoen maila. Toki entitateek izanen dute haien titularitatea.

2. Lurraldeko jarduketa esparrua Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoan ezartzen diren gizarte zerbitzuen eskualdeen arabera ezarriko da.

3. Profesional anitzeko taldea izanen dute, erregelamenduz ezarria.

30. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizunak.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizunak hauek izanen dira:

a) Premia egoerei antzeman, eta horiek aztertu eta diagnostikatzea, eskumena duten zerbitzuei jakinaraztea eta erantzunak proposatzea.

b) Gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezten dituzten pertsonak hartzea, lehen erantzuna emateko.

c) Herritarrei gizarte zerbitzuen sistemaren prestazioez eta babes sozialeko gainerako sistemez baliatzen laguntzea.

d) Premia sozialeko egoerak baloratu eta haien diagnostiko soziala edo/eta soziala eta hezkuntza arlokoa egitea, erabiltzaileak berak, bere ingurune familiar edo sozialak edo premia sozialaz arduratzeko sare publikoko beste zerbitzu batzuek hala eskatzen badute.

e) Premia sozialeko egoeran daudenei laguntza eta akonpainamendu soziala ematea.

f) Prebentzio eta gizarte sustapeneko jarduketak gauzatzea.

g) Titulu honetan aurreikusitako programak betetzea eta horietan jasotako prestazioak ematea.

h) Larrialdi sozialeko prestazioak kudeatzea.

i) Gizarte sentsibilizatzeko jarduketak gauzatzea.

j) Boluntarioen lana eta elkarrentzako laguntza sustatzea.

k) Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren prestazioetatik, oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkienak kudeatzea.

31. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuen programak.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduketak gutxienez lau programatan bideratuko dira:

a) Harrera eta orientabide sozialerako programa, populazio osoari zuzendua, gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezten dituzten pertsonen esku-hartze soziala emateko. Doakoa izanen da.

b) Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programa, menpekotasuna duten pertsonen haien ohiko ingurunean ahal den luzaroen gelditzea ahalbidetzeko xedea duena. Programa hori menpekotasuna ez dutenei ere zuzendu ahalko zaie, helburua beste programa batzuen bitartez lortzerik ez dagoenean.

c) Oinarrizko laguntzako gizarteratze programa, gizartean, edozein esparrutan, bazterturik edo baztertzeko arriskuan daudenak gizarteratzen laguntzeko xedea duena.

d) Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emateko tresnen bidez.

2. Lau programa horiek nahitaez ezarri beharrekoak izanen dira Nafarroako Foru Komunitate osoan. Ezarpena pixkana egingen da eta oinarritzko eskualde bakoitzean dauden populazio ratioek eta egoera sozialaren gorabeherek baldintzatuko dute. Programa horietako bat edo batzuk ezartzerik ez badago, eskaintza eskualde oinarritzkoa kokaturik dagoen barrutitik edo Foru Komunitateko beste barruti batzuetatik bermatuko da, gizarte zerbitzuetako zentroen bitartez, eta horrek ez die kosturik gehitu behar oinarritzko eskualde horietako biztanleei.

3. Programa horietako prestazioak erregulamenduz ezarriko dira, eta gizarte zerbitzuen zorroan aurreikusi egingen dira gutxieneko intentsitatea, horietaz baliatzeko baldintzak eta, halakorik dagoenean, kostuaren ordainketan laguntzeko aukera.

4. Oinarritzko laguntzan, toki entitateek beraien lurraldean eta eskumenen barruan ezartzen dituzten beste programa edo jarduketak gauzatuz osatu ahalko da esku-hartze maila.

5. Plan sektorialek aipatu programen eta herri-tar taldeei ematen zaizkien prestazioen eta jarduketan –ematen badira laguntza espezializatuaren bidez– arteko koherentzia eta erabiltzeko tresnak ziurtatu beharko dituzte.

32. artikulua. Gizarte zerbitzuetako zentroak.

1. Gizarte zerbitzuetako zentroak oinarritzko laguntzarako sostengu zerbitzuak izanen dira, oinarritzko gizarte zerbitzuen programak osatzeko eginkizunarekin.

2. Nafarroako Foru Komunitateak gizarte zerbitzuetako zentro bat gutxienez jarriko du gizarte zerbitzuetako barruti bakoitzean, gizarte zerbitzuen plan estrategikoan ezartzen denarekin bat; horrek ezarriko du halaber zentroaren jarduketa esparrua. Halere, egoera soziodemografikoa delata, zenbait barrutik gizarte zerbitzuetako zentro bera izan ahalko dute.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izanen du zentro horien titularitatea, salbu eta hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kasuan edo salbuespen gisa Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan ezarritako kasuetan.

Erregelamenduz ezarriko da zentro horiek izan beharreko profesional anitzeko taldeak, populazio ratioen eta arazo sozialen garrantziaren arabera.

3. Toki entitateek beraien gizarte zerbitzuetako zentroak sortu ahalko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoek

dituzten eginkizun berdinekin, toki entitate bakoitzaren jarduketa esparruan.

4. Edozein kasutan, gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak izanen du Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetako zentro guztien jarduketak koordinatzeko eskumena.

33. artikulua. Gizarte zerbitzuetako zentroak.

Hauexek dira gizarte zerbitzuetako zentroen eginkizunak:

a) oinarritzko gizarte zerbitzuei sostengua ematea haien eginkizunak osatzeko eta gizarte zerbitzu espezializatuarekin koordinatzeko.

b) Oinarritzko gizarte zerbitzuekin lankidetzan aritzea eta aholku ematea, eta baliabideak birbanatzen laguntzea.

c) Irizpide homogeenak ezartzea barruti osorako.

d) Oinarritzko gizarte zerbitzuekin batera aritzea kasuen jarraipena egiten eta haietan esku hartzen.

e) Zeharkako jarduketako programak sustatzea baliabideak aprobetxatze aldera.

34. artikulua. Gizarte zerbitzu espezializatuak.

1. Gizarte zerbitzu espezializatuak esku-hartze sektorialetara bideratutako prestazioak dituztenak dira, beharren tipologiari begiratuta, espezializazio teknikoa behar dutenak edo baliabide jakin batzuk erabiltzea.

2. Gizarte zerbitzu espezializatuak sare baten gisa antolatuko dira lurraldean, decentralizazio printzipioa, populazio guneen ezaugarriak eta ase behar dituzten beharren garrantzia kontuan harturik. Kasuan kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuan laguntza eman ondoren erabiliko dira zerbitzu espezializatuak, salbu eta erregelamenduz ezartzen diren kasuetan.

35. artikulua. Gizarte zerbitzu espezializatuaren eginkizunak.

Hauexek izanen dira gizarte zerbitzu espezializatuaren eginkizunak:

a) Oinarritzko gizarte zerbitzu batetik heltzeko modukoak ez diren premia sozialeko egoerak baloratu eta haien diagnostikoa egitea.

b) Tratamendu espezializatua eskaintzea eta gizarte zerbitzuen sistema publikoko prestazio teknikoak eta ekonomikoak kudeatzea, prestazioak garatzen dituzten arauak jarraikiz eta gizarte zerbitzuen zorroetan ezarritako baldintza eta ezaugarriekin.

c) Gizarteratze, parte-hartze, gaitze eta errehabilitazio sozialerako neurriak garatzea, pertsonen bizi baldintzak normalizatu eta hobetzeko xedearekin.

III. TITULUA

Eskumen eta antolaketa araubidea

I. KAPITULUA

Administrazio publikoen eskumenak

36. artikulua. Erantzukizun publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, udalei eta Nafarroako gainerako toki entitateei dagokie gizarte zerbitzuen arloko eskumenak erabiltzea, foru lege honetan eta toki araubideko legeetan ezarritakoarekin bat, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren funtzionamendu egokia bermaturik egon dadin.

37. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eskumenak.

Nafarroako Gobernuari dagokio:

- a) Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.
- b) Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osorako homogeenak izanen diren gutxieneko prestazioak bermatzeko behar diren neurriak hartzea.
- c) Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak onestea eta Nafarroako Parlamentura igortzea, bere iritzia eman dezan.
- d) Gizarte zerbitzu orokorren plan sektorialak eta programa oinarrikoak edo erkidegokoak eta espezializatuak onestea.
- e) Sistemaren koordinazio orokorrerako eta departamentuen arteko zeharkako koordinaziorako irizpideak eta formulak ezartzea, hala egitea beharrezkoa denean gizarte zerbitzuen kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzeko.
- f) Foru lege honen VIII. tituluaren aipatzen diren kalitate planak onestea.
- g) Haren titularitateko zerbitzuak toki entitateei eskualdatzea onestea, 45. artikuluan ezarritako prozedura bete ondoren. Foru dekretu baten bidez emanen da onespina, eta horrekin batera zehaztuko zer finantzabide, eta zer gauza- eta giza-baliabide eskualdatzen diren.
- h) Foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan emandako beste eskumen guztiak.

38. artikulua. Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren eskumenak.

Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren eskumenak hauexek dira:

- a) Gizarte zerbitzu orokorren zorroa betetzea.
- b) Gizarte zerbitzuen sistemaren koordinazioa bultzatzea.
- c) Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak, gizarte zerbitzu orokorren plan sektorialak eta programa oinarrikoak eta espezializatuak egitea, eta horiek betetzea koordinatzea.
- d) Foru lege honen VIII. tituluaren aipatzen diren kalitate planak egitea.
- e) Nafarroako toki entitateekin lankidetzan aritu eta laguntza ematea gizarte zerbitzuen politikak aplikatzeko.
- f) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoak diren gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta kudeatzea.
- g) Sistemako zerbitzuak erregistratu, baimendu eta kalitatea homologatzeko eginkizunak betetzea.
- h) Sistemako zerbitzuen ikuskapen eta kontrol eginkizunak betetzea eta zehapen ahalmenaz baliatzea gizarte zerbitzuen arloan.
- i) Foru lege honen arabera dagozkion gizarte zerbitzuen prestazioak kudeatzea gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitakoari jarraikiz.
- j) Gizarte zerbitzuen esparru materialeko fundazioen babesletza betetzea, lege indardunetan ezarritako moduan.
- k) Herritarren parte-hartzea, elkarteak, boluntarioen lana eta elkarrentzako laguntzarako beste formula batzuk sustatzea.
- l) Gizarte zerbitzuen profesionalei zuzendutako prestakuntza programak sustatu eta garatzea.
- m) Gizarte zerbitzuen arloan ikerketa eta azterketa sustatzea.
- n) Gizarte zerbitzuetako zentroak sortu, mantendu eta kudeatzea Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoan ezarritakoarekin bat.
- ñ) Foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan emandako gainerako eskumenak, bai eta foru lege hau betetzeko beharrezkoak diren eta Nafarroako Gobernuari espresuki edo beste administrazio publiko batzuei eman gabe dauden gainerakoak.

39. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Toki entitateei honakoak dagozkie:

a) Haien lurralde esparruan gertatzen diren premia sozialak aztertu eta antzematea.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak gizarte zerbitzuez eginiko planifikazio orokorrean parte hartzea.

c) Toki esparruko plan estrategiko eta sektorialak eta toki esparruko programa oinarrizkoak edo erkidegokoak eta espezializatuak onestea.

d) Haren lurralde esparruko oinarrizko gizarte zerbitzuak sortu, mantendu eta kudeatzea.

e) Haien lurralde esparruan beharrezkotzat jotzen dituen gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta kudeatzea.

f) Toki esparruko gizarte zerbitzuen zorroa onestea, zerbitzu orokorren zorroa haren lurralde esparruan osatzeko asmoa duenean.

g) Foru lege honen arabera eta gizarte zerbitzu orokorren zorroan eta bere gizarte zerbitzuen zorroan aurreikusitakorekin bat dagozkion gizarte zerbitzuen prestazioak kudeatzea.

h) Foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan emandako eskumenak.

II. KAPITULUA Lurralde antolaketa

40. artikulua. Lurralde antolaketaren printzipioak.

Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen lurralde antolaketa honako printzipio hauei lotuko zaie:

- a) Dezentralizazioa.
- b) Herritarrengandik hurbil egotea.
- c) Premia sozialak asetzeko eraginkortasuna.
- d) Lurralde oreka eta homogeneousitatea.
- e) Informazioaren eta zerbitzuen eskuragarritasuna.
- f) Koordinazioa eta sareko lana.

41. artikulua. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak.

1. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzari lurralde markoa ematen dioten geografia- eta populaziozedarriak dira, kasuan kasuko lurraldean populazioa gizarte laguntzaz baliatzea bermatzen dutenak, oinarrizko gizarte zerbitzuaren bitartez.

2. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen ezaugarriak erregelamenduz ezarriko dira, populazio ratioak eta premia sozialekoak kontuan hartu-

rik, eta osasun arloko eta administrazio-jardueta-rako beste arlo batzuetako zonifikazioarekin bat etortzen saiatuz. Horrez gain, aurreikusiko da jarduketa bereziko eskualdeak sortzea, ezaugarri demografiko, geografiko edo bestelakoak kontuan hartuta, eta horietan oinarrizko gizarte zerbitzua ezarri ahalko da.

42. artikulua. Gizarte zerbitzuen barrutiak.

1. Gizarte zerbitzuen barrutiak hurbiltasun irizpideetan oinarriturik eta ezaugarri soziodemografikoen arabera elkartutako gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualde batzuek osatzen dituzte, oinarrizko laguntzako programak partekatzeke eskuragarritasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspuntuetatik.

2. Gizarte zerbitzuen barrutien ezaugarriak erregelamenduz ezarriko dira.

43. artikulua. Gizarte zerbitzu espezializatuen jarduketarako lurralde esparrua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpeko gizarte zerbitzu espezializatuen jarduketa- esparrua Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoa izanen da.

2. Toki entitate baten menpeko gizarte zerbitzu espezializatuen jarduketa-esparrua toki entitatearen beraren lurraldea izanen da.

III. KAPITULUA Administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzak

44. artikulua. Administrazioen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren helburu eta printzipio nagusiak.

1. Administrazioen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako foru lege honetan aurreikusitako tresnen eta organoen helburua izanen da Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan gutxieneko prestazio homogeneousak bermatzea eta ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handienak lortzea gizarte zerbitzuen sistemaren funtzionamenduan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barrenean koordinazio egokia lortzeko, Nafarroako Gobernuak eta gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartu beharko dituzte, pertsonen gizarte ongizateari eragiten dioten departamentuen jarduketak modu integratuan bete daitezzen.

3. Era berean, Nafarroako Gobernuak neurriak hartu ahalko ditu toki entitateen jarduketa eta ekimen pribatuarenak koordinatzeko, honako hauen bitartez:

a) Foru lege honetan ezarritakoaz beste koordinazio organoak sortuz.

b) Lurralde osoan zerbitzuen gutxieneko kalitate baldintzak ezarriz.

c) Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak, plan sektorial orokorrak eta gizarte zerbitzu oinarritzuen edo komunitarioen eta espezializatu-en programa orokorrak onetsiz.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa eta toki entitateak lankidetzan arituko dira gizarte zerbitzuen arloko politikak aplikatzean, zein bere eskumenekin bat, foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnen bitartez. Halaber, Estatuko administrazio orokorrek ere lankidetzan arituko dira, foru lege honen aplikazio esparruan eragina duten Estatuko eskumenen arloan.

45. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseilu.

1. Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseilua eratuko da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta Nafarroako toki entitateen arteko lankidetzaren administratiboko organo iraunkorra izan dadin.

2. Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseiluaren xedea izanen da gizarte zerbitzuen arloko politika publikoen koordinazioaren alde egitea eta dezentralizazio egokia bultzatzea.

3. Kontseiluko burua gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko titularra izanen da; kontseiluko kideen erdia Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariak izanen dira eta beste erdiak Nafarroako toki entitateenak.

4. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoari buruzko txostena egitea.

b) Plan sektorial orokor eta tokikoei buruzko txostena egitea.

c) Nafarroako Gobernuari Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoak diren zerbitzuak toki entitateei eskualdatzea proposatzea; proposamenean, eskualdatu beharreko baliabide finantzario, material eta giza-baliabideen balorazioa jaso beharko da. Kontseiluak arlo horretan toki entitate zehatz bati dagokionez hartutako erabakiek nahitaez beharko dute toki entitate horren alde aurretiko adostasuna.

d) Lege edo erregelamendu mailako xedapenen bidez emandako gainerako eginkizunak.

5. Kontseiluaren osaketa zehatza eta jarduteko araubidea erregelamenduz ezarriko dira.

46. artikulua. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea.

1. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea kide anitzeko organoa da, aholkularitzakoa, diziplina artekoa eta independentea, eta helburu du zerbitzuetako eta zentroetako langileak sentibilizatzea egiten duten lanak duen garrantzi etikoari buruz, eta bermatzea pertsonak beren nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatua izateko duten eskubidea, inongo bazterkeriarik gabe, bai eta, era berean, jardun sozialaren alderdi etikoak identifikatzea, aztertzea eta ebaluatzea.

2. Etika batzordearen osaera erregelamenduz ezarriko da, aniztasun irizpideei jarraikiz, eta gizarte zerbitzuen arloan eta gizarte babeseko beste sistema batzuetan prestigio handia duten profesionalek osatuko dute, kasuan kasuko elkarte profesionalak proposatuta.

3. Etika batzordearen berariazko eginkizunak erregelamenduz ezarriko dira, eta, betiere, honakoak jaso beharko dira:

a) Gizarte laguntzarekin zerikusia duten etika gaiei buruzko irakaskuntza-eginkizunak.

b) Gizarte laguntzarekin zerikusia duten etika gaiei buruzko ikerketa-eginkizunak.

c) Gizarte laguntzarekin zerikusia duten etika gaiei aholkularitza- eta irizpen-eginkizunak.

4. Erregelamenduz arautuko da arloetan edo zentroetan etika batzordeak ezartzeko aukera; batzorde horien eginkizunak artikulua honetan araututako batzordearen berdintsuak izanen dira.

IV. TITULUA

Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren finantzaketa

47. artikulua. Finantzaketaren bideak eta printzipioak.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa honakoekin finantzatuko da: Nafarroako aurrekontu orokorretako ekarpenak; Nafarroako toki entitateen aurrekontuetako ekarpenak; nazioko gobernuak egindako ekarpenak, daudenean; testamenturik gabeko jarauntsiak, Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Konpilazioan eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat; xede horrekin entitate pribatuek egindako ekarpenak; eta foru lege honetan ezarritako moduan zerbitzuen erabiltzaileek egindako ekarpenak.

2. Nafarroako administrazio publikoek bermatu beharko dute herritarren eskubidea gizarte zerbitzuen zorroetan aitortzen zaizkien prestazioak jasotzeko eta haien eskumeneko zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko, aurrekontuetan horretarako behar diren zenbatekoak ezarriz.

48. artikulua. Prestazioen finantzaketa.

Nafarroako aurrekontu orokorretan eta toki entitateen aurrekontuetan kasuan kasuko gizarte zerbitzuen zorroan dauden prestazio bermatuak finantzatzeko behar diren kredituak ezarriko dira urtero, herritarren eskubide subjektiboa bermatzearen. Kreditu horiek aski ez badira prestazio bermatu horiek finantzatzeko, handitu egin beharko dira.

49. artikulua. Azpiegituren finantzaketa.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura soilik finantzatu ahalko dira Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusirik dauden gizarte zerbitzuen azpiegiturak, publikoak nahiz pribatuak.

50. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketa.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta ematen dituzten programen finantzaketa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta Nafarroako toki entitateek hartuko dute bere gain.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ekarpena oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateekin urte bat baino gehiagorako izenpetuko diren hitzarmenetan ezarriko da, eta ez da inoiz ere izanen foru lege honetan ezarritako programen kostuaren 100eko 50 baino txikiagoa. Programen kostua zehazteko modua eta jarduketa bereziko eskualdeetarako irizpide desberdinak erregelamendu bidez ezarriko dira, 31.3 artikuluan ezarritakoa aintzat harturik.

Edozein kasutan, menpekotasunari buruzko estatuko legeetan bermaturik dauden prestazioak sartuz gero programetan, horiek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak finantzatzeko dituzten osotara.

3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako finantzaketa jasotzeko, toki entitateek hitzarmenetan bildutako jarduketa guztiak bete dituztela justifikatu beharko dute.

51. artikulua. Gizarte zerbitzuetako zentron finantzaketa.

1. Gizarte zerbitzuetako zentron finantzaketa horien titular den administrazioari dagokio, salbu eta hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako

kasuan, edo salbuespen gisa Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan ezarritako kasuetan.

2. 1. idatz-zatian aurreikusitako salbuespeneko kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren finantzaketa kasuan kasuko toki entitatearekin izenpetuko den lankidetzahitzarmen batean ezarriko da, eta ordainketa gauzatzeko hitzarmenean aurreikusitako jarduketa guztiak bete direla justifikatu beharko da.

52. artikulua. Gizarte zerbitzu espezializatuen finantzaketa.

Gizarte zerbitzu espezializatuen finantzaketa horien titular den administrazioari dagokio.

53. artikulua. Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan.

1. Gizarte zerbitzuen zorroetan ezarriko da gizarte zerbitzuen sistema publikoko zein prestaziotan eskatu ahalko zaien erabiltzaileei ordainketan parte-hartzea.

2. Erregelamenduz ezarriko dira erabiltzaileen parte-hartzearen zenbatekoa zehazteko irizpideak; betiere, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren irizpidea eta unibertsaltasunarena errespetatu beharko dituzte, halako moduan non inor ez den geldituko laguntzarik gabe bitarteko ekonomikoen ezagatik, eta zerbitzuaren izaera, kostua eta populazioaren zer sektoreri zuzentzen zaion aintzat hartu beharko dituzte.

3. Ordaindu beharra dakarten zerbitzu bakoitzaren titular den administrazioak zehaztuko du ordainketako parte-hartzea zenbatekoa izanen den, betiere zorroan eta foru lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako irizpideak errespetatuz. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman beharko da.

V. TITULUA

Kontsulta eta partaidetza organoak

54. artikulua. Herritarren partaidetzaren bermea eta irismena.

Nafarroako administrazio publikoek sustatu behar dute herritarrek, erabiltzaileen elkarteek, gizarte zerbitzuetako profesionalek eta gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateek gizarte zerbitzuen sistemaren planifikazioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten.

55. artikulua. Parte hartzeko moduak.

Herritarren parte-hartzea gizarte zerbitzuen sistematan honako baliabide hauekin gauzatzeko da:

a) Parte-hartze organikoa.

b) Zerbitzuetako partaidetza-kontseiluetan parte hartzea.

c) Parte hartzeko beste modu batzuk.

56. artikulua. Kontsulta-organoak.

Gizarte zerbitzuen arloko parte-hartze organikoa kontsulta-organo hauen bidez gauzatuko da:

a) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua.

b) Gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak, Nafarroako Gobernuak sortutakoak.

57. artikulua. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua: izaera eta eginkizunak.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua gizarte zerbitzuen arloko partaidetza- eta kontsulta-organoa da. Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuari atxikia egonen da.

2. Hauexek izanen dira Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nahitaezko txostenak ematea gizarte zerbitzuen arloko arau proiektuez, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoez, plan sektorial orokorrez eta kalitate planez.

b) Aplikazioaren eta betetze-mailaren jarraipena egitea honakoetan: Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoak, plan sektorial orokorrak, kalitate planak eta gizarte zerbitzuen orokorren zorroa.

c) Gizarte zerbitzuen sistema hobetzeko proposamenak, gomendioak eta iradokizunak egitea.

d) Lege edo erregelamendu mailako xedapenen bidez emandako gainerako eginkizunak.

58. artikulua. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua: kideak eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko burua gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko titularra izanen da, eta kideak, berriz, departamentu horretako ordezkariak, toki entitateetakoak, ordezkari handiena duten enpresa erakunde eta sindikatuetaoak, lanbide elkargoeetakoak, sortzen diren gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialetakoak, unibertsitateetakoak eta gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateetakoak. Kideak eta horiek izendatzeko modua erregelamenduz ezarriko da.

2. Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko da, eta edozein kasutan aurreikusi beharko da zenbait batzorde sortu beharko direla, enpleguko kalitateari buruz, gizarte zerbitzuen zorroaren jarraipenari

eta aldaketari buruz eta zerbitzuak baimentzeko, erregistratzeko eta homologatzeko sistemari buruz.

59. artikulua. Kontsulta-organo sektorialak.

Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahalko ditu, kontsultarako eta gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari atxikiak; haiek ukitzen dituzten gizarte zerbitzuen arloko politiken esparru mugatuan jardunen dute. Horien xede eta helburuak, eginkizunak, kideak eta funtzionamenduen araubidea sortzedapenetan ezarriko dira.

60. artikulua. Partaidetza kontseiluak.

Zerbitzu guztiek izan beharko dute ezarria erabiltzaileek edo/eta haien familiek parte hartzeko sistema bat, Partaidetza Kontseiluaren bidezkoa. Kontseiluko kideak, eginkizunak, eta funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko dira.

61. artikulua. Parte hartzeko beste modu batzuk.

Nafarroako administrazio publikoek sustatu beharko dute gizarte zerbitzuen arloko arauak eta foru lege honetan aurreikusitako plan eta programak egitean herritarrek parte hartzeko prozesuak ezar daitezzen, populazioak erabilitako oinarriak ezagutu, proposamenak aurkeztu, horiek eztabaidatu eta prozesuaren emaitzaren berri izan dezan

VI. TITULUA

Gizarte zerbitzuetako profesionalak

62. artikulua. Profesionalen esku-hartzearen izaera.

1. Gizarte zerbitzuen arloko esku-hartzearen izaera lanbide artekoa da, laguntza integrala ematea helburu.

2. Erregelamenduz ezarriko dira gizarte zerbitzuetan jarduten duen profesional anitzeko lantalde bakoitzean izan beharreko titulazioak eta ratioak, bai eta kide bakoitzaren eginkizun nagusiak ere; horiek ezartzeko zerbitzu bakoitzaren helburuak eta ezaugarriak hartuko dira kontuan, hartzaileentzako estaldura egokia eta tratu duina bermatzeko.

63. artikulua. Profesionalen eskubideak eta betebeharrak.

Gizarte zerbitzuetako profesionalak, bakoitzari aplikatzekoak zaizkion legetan aitortu eta ezarritako eskubide eta betebeharez gain, hauexek ere izanen dituzte berariaz:

a) Etengabeko prestakuntza jasotzea, lanbidearen ezaugarrietarako egokia, eta prestakuntza horretaz baliatzea gizarte zerbitzuen hartzaileei ematen zaien laguntza hobea izan dadin.

b) Tratu errespetuzkoa eta zuzena izatea zerbitzuen arduradunekin, gainerako profesionalekin eta gizarte zerbitzuen hartzaileekin. Elkarrekiko eskubide eta betebeharrak hori zerbitzuak antolatze-ko erregelamenduetan jaso beharko da, eta hura urratzeak zehapen edo diziplina espedienteak eraginen ditu.

c) Lana eraginkortasunez eta efizientziaz garatu ahal izateko behar den sostengua izanen duten talde teknikoetan sartzea.

d) Partaidetza organoetan parte hartzea foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat, eta zerbitzuak aldizka ebaluatze-ko prozesuetan parte hartzea.

64. artikulua. Erreferentziako profesionala.

Erreferentziako profesionalaren eginkizuna erabiltzaileak behar dituen zerbitzuak eta prestazioak bideratzea izanen da, eta esku-hartze guztien globaltasuna eta koordinazioa bermatzea.

VII. TITULUA **Ekimen pribatua**

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

65. artikulua. Printzipio orokorrak.

Gizarte zerbitzuak ematea lehentasunezko jarduera duten pertsona fisikoak edo lehentasunezko helburua hori duten pertsona juridikoak, ematen dituzten zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribaturik badituzte, gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateatzat hartuko dira foru lege honen ondorioetarako.

66. artikulua. Ikerkuntzaren sustapena.

1. Ikerkuntza jarduerak gizarte zerbitzuen sistemaren maila guztietan sustatuko dira, hori sistemaren aurrerabiderako funtsezko elementutzat hartzen baita.

2. Egindako ikerketen helburu nagusia hau izanen da: herritarren bizi kalitatea hobetzea eta gizarte bazterkeria eragiten duten faktoreen aurka borrokatzea. Ikerketak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte errealitatea ikertzera eta aztertzerara bideratuko dira bereziki; hain zuzen ere, behar egoerak eragiten dituzten arazoak ikertzera eta aztertzerara, eta prebentziorako, laguntzarako nahiz birgizarteratzeko esku-hartze-

ko moduak ikertzera eta aztertzerara. Era berean, gizarte zerbitzuen esku-hartzeek duten eraginkortasuna eta efizientzia ere zorrotz ebaluatuko dituzte ikerketok.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bai ikerkuntza programak bai horiek betetze-ko baliabideen esleipena koordinatuko ditu, inbertsioen ahalik eta errentagarritasun handiena lortze aldera. Era berean, eginiko ikerketen emaitzen hedapena ere erraztuko du.

67. artikulua. Ekimen pribaturako erak.

1. Gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateak gizarte ekimenekoak eta merkataritza ekimenekoak izan daitezke.

2. 65. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten fundazioak, elkarteak, boluntarioen entitateak, eta irabazi asmorik gabeko beste entitate eta erakunde batzuk dira gizarte ekimeneko entitateak.

3. 65. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta irabazi asmoa duten pertsona fisiko eta juridiko pribatuak dira, berriz, merkataritza ekimeneko entitateak.

68. artikulua. Ekimen pribatuaren eskubideak eta betebeharrak.

1. Foru lege honetan eta garapen arauetan baimenerako ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateek eskubidea izanen dute gizarte zerbitzuen arloan aritzeko.

2. Gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateek eskubidea izanen dute haien zerbitzuak homologatzeko eta horrek dakartzan onurez baliatzeko, foru lege honetan eta garapen arauetan ezarritako moduan.

3. Gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateak, baimen eta homologazio baldintzak betetzeari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak egiten dituen egiaztatze eta ebaluatze jarduketan menpe daude, eta eskubidea dute jarduketa horiek berme guztiak betetzen dituen prozedura bati jarraikiz egin daitezen.

II. KAPITULUA **Baimena eta erregistroa**

69. artikulua. Baimen administratiborako araubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen sistemaren parte izanen diren gizarte zerbitzuak emateko beharrezkoa izanen da, erregistro horiek 75. artikuluan aurreikusitako erregistroan

inskribaturik egoteaz gain, foru lege honen hurrengo artikuluan aurreikusitako baimen administratiboak lortu eta horiei eustea, baimenen xedea baita betebeharrak batzuk eta gutxieneko kalitate estandarrek betetzen direla bermatzea.

2. Gizarte zerbitzuen sisteman sarturik ez dauden gizarte zerbitzuen arloko jarduketak gauzatzeko, berriz, 74. artikuluan aurreikusitako baimen administratiboa beharko da.

70. artikulua. Baimen administratibo motak.

Bete beharreko jarduketaren arabera beharrezkoa izanen da baimen administratibo hauetakoren bat lortzea:

a) Gizarte zerbitzuak non eman behar diren, zentro horien funtsezko aldaketarako baimena.

b) Gizarte zerbitzuen funtzionamendurako baimena, bai eta titularitatea edo eginkizunak eta helburuak aldatzekoa ere.

c) Behin-behineko baimenak salbuespenezko kasuetarako, aldi baterako kokapenak aurreikusten direnerako.

d) Zerbitzuak bertan behera uzteko baimena.

71. artikulua. Baimen administratiboak lortzeko gutxieneko baldintzak.

Baimen administratiboa lortzeko gutxieneko baldintzak erregelamenduz ezarriko dira zerbitzu mota bakoitzerako. Edozein kasutan, arautzeak alderdi hauek jaso beharko ditu:

a) Zerbitzuak eman behar diren azpiegiturak eraiki, kokatu eta egokitzeko eskatuko diren baldintzak.

b) Zerbitzuei beren izaeraren arabera eskatu ahal zaizkien baldintza materialak, segurtasunekoak eta ekipamendukoak.

c) Langileek izan beharreko titulazioak, gutxieneko kopurua, laguntza hartuko duten pertsonen kopuruaren eta okupazio mailaren arabera.

d) Txosten bat eta jarduketa plan bat aurkezteko beharra, zehaztuz esku hartzeko araubidea, laguntza programak garatzeko modua eta horiek betetzeko metodologia eta prozedurak.

72. artikulua. Baimenak emateko prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusitako baimen administratiboak emateko prozedura interesdunak eskatuta abiaraziko da.

2. Prozedura hori erregelamenduz ezarriko da, eta gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuko langileek gutxienez bisita bat eginen dutela aurreikusi beharko da; bisita horretan, enti-

tate eskatzailearen ordezkari batek ere egon beharko du. Bisitaren akta jasoko da, eta, aktaren arabera, eskatutako baimena ematea galarazten duten ez-betetzeak baldin badaude, alegazio epe bat irekiko da.

3. Aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena eta jakinarazpena emateko erregelamenduz aurreikusitako epea iraganik, interesdunak eskabideak administrazioaren isiltasunaren ondorioz ezetsi direla ulertu ahalko dute.

73. artikulua. Baimenei eustea.

1. Emandako baimenei eusteko beharrezkoa izanen da uneoro betetzea 71. artikuluan aipatzen diren baldintzak eta, halaber, ematen diren zerbitzuetan gutxieneko kalitate estandarrei ere eustea.

2. Gutxieneko estandar horiek erregelamenduz ezarriko dira, eta ondotik aipatzen diren alderdien gaineko adierazle kuantitatibo eta kualitatibotan oinarriturik lortuko dira: zerbitzuen egitura, giza baliabideak, emandako zerbitzuaren ebaluazio objektiboa eta erabiltzaileen gogobetetzea.

3. Gutxieneko baldintzak eta kalitate estandarrek ez betetzeak ekar dezake emandako baimena ezeztatzea edo etetea, dagokion prozedura, erregelamenduz ezarriko dena eta betiere interesdunari entzutea ematea bermatuko duena, ireki ondoren.

4. Jarduteko baimena eteteak edo ezeztatzeak Gizarte Zerbitzuen Erregistroan jasotako erregistro datuak ezabatzea ere ekarriko du.

74. artikulua. Berariazko baimenak.

1. Foru lege honen 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateak ez diren baina gizarte zerbitzuen arloan aritzea aurreikusia duten pertsona fisiko eta juridikoek gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak emandako baimen berariazko bat lortu beharko dute, baimena eskatzean adierazitako jarduketarako baizik balio izanen ez duena.

2. Baimen horiek lortzeko gutxieneko baldintzak eta prozedura erregelamenduz ezarriko dira.

3. Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuan Baimen Berariazko Erregistroa sortuko da eta erregelamenduz garatuko da.

4. Baimen berariazkoak berekin ekarriko du entitate horiek aukera izatea gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak onetsitako dirulaguntza deialdietan parte hartzeko.

75. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa.

1. Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak gizarte zerbitzuen erregistro bat eduki beharko du, eta bertan agerraraziko da zer zerbitzu dauden gizarte zerbitzuen sisteman sarturik eta zer administrazio publiko edo gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitate diren zerbitzu horien titular edo kudeatzaile.

2. Gizarte Zerbitzuen Erregistroan jaso beharreko datuak eta horiek inskribatu, aldatu eta ezeztatzekeo prozedura erregelamenduz ezarriko dira, horietatik zein diren publikoak adieraziz.

3. Erregistro horretan inskribatu beharreko zerbitzuen entitate titularrek Nafarroako aurrekontu orokorren kargura dirulaguntzak jaso ahal izateko beharrezkoa izanen da inskripzio hori egitea.

III. KAPITULUA

Homologazio administratiboa

76. artikulua. Homologazio administratiboaren araubidea.

Gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateek ematen dituzten zerbitzuek, sistema publikoan sartu ahal izateko, homologazio administratiboa lortzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dituzte.

77. artikulua. Homologaziorako gutxieneko betebeharrak.

1. Erregelamenduz ezarriko dira homologazio administratiboa edukitzeko eskatuko diren baldintzak, eta kontuan hartuko dira gizarte ekimeneko entitateek emandako zerbitzuen ezaugarri bereziak. Ezartzen diren adierazleek gutxienez alderdi hauek hartuko dituzte aintzat:

a) Foru lege honen 73.2 artikuluan ezarritakoa; baimen administratiboari eusteko ezarritakoa baino kalitate maila handiagoa eskatuko da.

b) Kalitatea profesionalen enpleguan.

c) Informazio ekonomiko eta finantzarioa nahiz kudeaketakoa ekartzea.

2. Homologazio administratiboa eskatzeko, foru lege honetan aurreikusitako baimen administratiboak bete beharko ditu, kasua bada, eta Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatu ahal izateko baldintzak ere bai; gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak egiaztatu beharko du hala dela, eta zerbitzua homologazioa jasotzeko egokia dela adierazteko ebazpena emanen du. Homologaziorako prozedura abiarazteko aukera ukatzen duen ebazpenaren kontra lege indardunetan

aurreikusitako errekurtsu administratiboak aurkeztu ahalko dira.

78. artikulua. Homologazio administratiboa emateko prozedura.

1. Gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateek homologazio administratiboa lortzeko prozedura entitate interesdunek eskatuta abiaraziko da.

2. Prozedura hori erregelamenduz ezarriko da, eta gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuko langileek gutxienez bisita bat eginen dutela aurreikusi beharko da; bisita horretan, entitate eskatzailearen ordezkari batek ere egon beharko du. Bisitaren akta jasoko da, eta zerbitzuak, aktaren arabera, eskatutako homologazioa lortzeko behar diren baldintzak betetzen ez baditu, alegazio epe bat irekiko da.

3. Aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena eta jakinarazpena emateko erregelamenduz aurreikusitako epea iraganik, interesdunek eskabideak administrazioaren isiltasunaren ondorioz ezetsi direla ulertu ahalko dute.

79. artikulua. Homologazio administratiboari eustea.

1. Gizarte zerbitzuen ekimen pribatuko entitateek homologazio administratiboari eusteko, unean unean erregelamenduz ezarriko diren kalitate estandarrak bete beharko ditu zerbitzuak, eta kalitate mailaren aldizkako ebaluazioak onartu. Ebaluazio prozedura erregelamenduz ezarriko da.

2. Kalitate estandarrak ez betetzeak emandako baimena ezeztatzea edo etetea ekar dezake, dagokion prozedura, erregelamenduz ezarriko dena eta betiere interesdunari entzutea ematea bermatuko duena, ireki ondoren.

3. Zerbitzua bertan behera gelditzeak emandako homologazioa ezeztatzea ere ekarriko du.

80. artikulua. Titularitate publikoko zerbitzuen homologazioa.

1. Titularitate publikoko zerbitzuek, zuzenean kudeatu nahiz ekimen pribatuko ekimen baten bitartez, homologaturik egon beharko dute.

2. Zerbitzu horiek homologatzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da.

3. Zerbitzuaren titular den administrazioak ez duenean zerbitzua zuzenean kudeatzen, neurriak ezarri beharko ditu kudeatzen duen entitateak behar dena egin dezan zerbitzua homologaturik egoteko. Administrazio titularrak gai horri dagokionez hartutako neurriak eta egindako eskaerak entitate pribatuak ez betetzeak izenpetutako kontratua suntsitzea ekar dezake.

VIII. TITULUA

Gizarte zerbitzuen kalitatea

81. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko kalitate planak ezarritako marko orokorraren barruan.

2. Horretarako, foru lege honen VII. tituluari, III. kapituluari, aurreikusitako homologazioa lortzeko dirulaguntzak emateari lehentasuna emanen dio, zerbitzu guztiek homologazioa lortzeko eskatzen den kalitate maila beregana dezaten.

3. Era berean, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak jendaurrean jarriko du, urtero, homologazio hori duten zerbitzuen zerrenda.

82. artikulua. Kalitate plana.

1. Nafarroako Gobernuak kalitate planak onetsiko ditu Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetarako, kalitate prozesuen garapena eta aplikazioa ziurtatzeko oinarrizko tresna gisa.

2. Planak lau urteko indarraldia izanen du, baina aldizka aldatu beharko da, haren helburuen ebaluazio sistematikoaren eta aplikazioaren jarraipenaren arabera.

3. Kalitate planek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko dituzte:

- a) Lortu beharreko kalitate helburuak, zehaztuta.
- b) Hobekuntzarako bide eta sistemak, orokorrak eta sektorialak.
- c) Erabiltzaileen eta haien familien iritziei buruzko azterlanak.
- d) Genero ikuspegia, zerbitzuak kudeatu, antolatu eta ematean.

IX. TITULUA

Ikuskapena eta zehapen araubidea

I. KAPITULUA

Ikuskapena

83. artikulua. Ikuskapenaren menpeko jarduketak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruan dauden entitate publiko eta pribatuak betetako jarduketa guztiak egonen dira Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuaren ikuskapenaren eta kontrolaren menpe.

2. Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak eginkizun horiek beteko dituzten ikuskatzaileak gaituko ditu, eta langile horiek agintearen agente izaera izanen dute jardunean daudelarik.

3. Ikuskatzaileek baimentzeko, homologatzeko eta erregistratzeko prozesu guztietan izanen dute erantzukizuna, bai eta, lege honen aplikazio esparruan, entitate publiko nahiz pribatuak ezarri beharreko aldizkako ebaluazio eta kalitate prozesu guztietan ere.

II. KAPITULUA

Arau-hauste administratiboak

84. artikulua. Arau-hausteak eta subjektu erantzuleak.

1. Gizarte zerbitzuen arloko arau-hauste administratiboak dira subjektu erantzuleen ekintzak eta ez-betetzeak, baldin eta lege edo erregelamenduzko arauen kontrakoak izan eta titulu honetan tipifikaturik eta zehaturik badaude.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Titulu honetan tipifikaturiko arau-haustetzat har daitezkeen ekintzak edo ez-betetzeak egotzi ahal zaizkien pertsona fisiko nahiz juridikoak dira subjektu erantzuleak.

4. Zerbitzuetako administratzaileak, gerenteak, zuzendariak eta arduradun teknikoak ere erantzuleak izan daitezke, bere eginkizunen esparruan eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

5. Zerbitzuetako titularrak kudeaketaren egile ez direnean, kudeatzaileen ekintzen eta ez-betetzeen erantzun subsidiarioa hartuko dute bere gain.

85. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei lege aitorturiko eskubide hauek urratzea: zerbitzuko barne erregelamendua eskura izan eta ezagutzea, kexak eta iradokizunak jaso eta ebazteko sistema bat egotea, erabiltzaileari zerbitzuaren prezioa eta ordainetan eman behar duena jakinaraztea eta erabiltzailearentzat garrantzitsuak diren objektu pertsonalak edukitzea.

b) Erabiltzaileen erregistrorik ez izatea edo behar bezala eguneraturik ez edukitzea, erregelamenduan halakoa edukitzea eskatzen den zerbitzuetan.

c) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak prestazio eta zerbitzuetarako ezarritako arauak, betebeha-

rrak, prozedurak eta baldintzak ez betetzea, eta gizarte zerbitzuetako profesionalen programei eta orientabideei ez jarraitzea, halako moduan non esku-hartze sozialaren xedeak izaera galtzen duen.

d) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileek eman zaizkien prestazioak erabiltzea emandako helburuaz beste baterako.

e) Finantzaletan parte hartzeko betebeharra urratzea, gizarte zerbitzuen erabiltzaileei lege eskatzekoa denean.

f) Gizarte zerbitzuen arloan foru lege honen 74. artikuluan araututako baimen administratibo berriazkoa izan gabe jardutea.

g) Zerbitzuen titularitatea aldez aurretik baimen administratiborik izan gabe aldatzea.

h) Foru lege honen V. tituluaren ezarritako moduan herritarrek gizarte zerbitzuetan parte hartzeko duten eskubideaz baliatzea galaraztea.

i) Foru lege honetan ezarritako oinarritzko gizarte zerbitzuetako edozein programa ez ezartzea edo gaizki betetzea, lege hau garatzeko xedapenetan eta gizarte zerbitzu orokorren zorroan eskatzen den moduan.

86. artikulua. Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak honako hauek dira:

a) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak horietaz berdintasunez balia daitezzen galaraztea.

b) Gizarte zerbitzuen hartzaileei buruzko datu pertsonalen, familiarren edo sozialen gaineko konfidentzialtasun betebeharra ez betetzea, gizarte zerbitzuen esku dauden datuei dagokienez.

c) Hartzaileentzako banakako edo/eta familiako laguntza plana egiteko betebeharra ez betetzea, edo hura egin edo aplikatzerakoan ez betetzea horretarako dauden lege manuak, bereziki kasuaren balorazioari, hartzaileek banakako esku-hartze prozesuan parte hartzeari eta erreferentziako profesional bat izendatzeari dagokiena.

d) Egoitza batean sartu, bertan gelditu eta bertatik ateratzeko gizabanakoen askatasunaz baliatzea galaraztea, salbu eta adingabeko eta ezgaituentzako lege indardunek ezarritakoaren kasuan.

e) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena.

f) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileen eskubide hauek ez betetzea: intimitatea errespetatzea, komunikazioen sekretua, praktika erlijiosoa, egoi-

tza etxetat hartzea eta ingurune familiar eta sozialarekin harremanetan egotea.

g) Zerbitzuko prezioen araubidea ez betetzea edo aldatzea.

h) Gizarte zerbitzuak eman behar diren zentron funtsezko aldatetarako egiteko edo zerbitzu horien funtzionamendurako beharrezkoa den aldez aurretiko baimen administratiborik izan gabe jardutea gizarte zerbitzuen arloan, edo eginkizunak eta helburuak funtsean aldatzeko baimenik gabe, eta, hala ezarririk dagoen kasuetan, foru legearen 70. artikuluan araututako behin-behineko baimenik gabe.

i) Baimendutako gizarte zerbitzu bat horretarako aldez aurretiko baimen administratiboa lortu gabe bertan behera uztea.

j) Sistema publikoko gizarte zerbitzu gisa beharrezkoa den homologazioa izan gabe jardutea.

k) Baimen administratiboak edo homologazioa lortzeko behar diren datuak faltsutzea, bereziki honakoak: entitatearen nortasunari eta gizarte- edo merkataritza-izaerari dagozkienak; ezaugarri material, ekipamendu eta segurtasunekoienak; zentroak eraiki, kokatu eta egokitzeko baldintzei dagozkienak; laguntza eta zuzendaritza arloetako langileek bete beharreko titulazio baldintzei eta ratioei dagozkienak; eta kasu bakoitzean eskatzen diren kalitate estandarrak betetzeari dagozkienak.

l) Baimenak eta homologazioa emateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu eta ebaluatzeko jarduketak ez onartzea, galarazi edo eragozte.

m) Zerbitzuek jarduteko edo homologaturik egoteko bete behar dituzten baldintzak eta kalitate estandarrak erregulatzen dituen araudia ez betetzea.

n) Administrazioaren ikuskapen lanari trabak jartzea.

87. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak honako hauek dira:

a) Gizarte zerbitzuak ematea halakoak direla ezkutaturik, arloan indarra duen legeriaren aplikazioa saihesteko.

b) Sendagileak agindu gabe eta gainbegiratu gabe immobilizazioa edo murrizketa fisiko edo tratamendu farmakologikoren bat jasanaraztea zerbitzuen erabiltzaileei, non eta ez dagoen haien nahiz hirugarrenen segurtasun fisikorako arrisku berehalakorik.

c) Zerbitzuetako erabiltzaileei tratu txar fisiko nahiz psikikoak eragitea.

d) Ikuskatzaileei, salatzaileei, erabiltzaileei edo haien familiartekoei koakzioak edo/eta mehatxuak edo beste edozein presio larri eragitea.

e) Zerbitzuek funtzionatzeko eta denboran zehar baimen administratiboak edo homologazioa lortzeko baldintzei eusteko bete behar dituzten gutxieneko baldintzak eta kalitate estandarrek erregulatzen dituen araudia ez betetzea, horrek erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen duenean.

88. artikulua. Preskripzioa.

Foru lege honetan tipifikaturiko arau-hauste oso larriek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebeteren buruan, arau-haustea egin zenetik hasita.

III. KAPITULUA

Zehapen administratiboak

89. artikulua. Zehapen administratiboak.

1. Aurreko kapituluan ezarritako arau-hausteez honako zehapen hauek ekarriko dituzte:

a) Arau-hauste arinak: idatzizko kargu-hartzea edo gehienez ere 12.000 euroko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 12.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak: 60.001 eurotik 600.000 eurora bitarteko isuna.

2. 85. artikuluko c) eta d) letretan tipifikaturiko arau-hauste arinen zehapen gisa, sei hilabetetik hiru urtera bitarteko epean arau-haustearen xede izan den prestazio horretaz baliatzeko debekua ezarriko zaio gizarte zerbitzuen erabiltzaileari. Arau-haustea legez ezgaituriko erabiltzaile baten legezko ordezkaria denean, 6.000 euro bitarteko zehapena ezarriko zaio horri, eta erabiltzaileari ez zaio ezarriko puntu honetan agindutakoa.

Arau-haustea egoitzako zerbitzuei dagokienean, zehapen gisa gizarte zerbitzura igorriko da erabiltzailea, edo, zerbitzu horren onuradun izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, emandako prestazioa kenduko zaio.

90. artikulua. Hertsatzeko isunak.

1. Arau-haustea legez eska daitekeen jarrera edo jarduketaren bat ez betetzea denean, zehapenari errekerimendu bat erantsiko zaio, zehazturik arau-haustea zehazki zer egin behar duen egoera leheneratu eta legez eskatzekoak diren baldintzak betetzeko, eta zer epe duen horretarako.

Horretara beharturik dagoenak errekerimendu horretan ezarritakoa moduan eta epean betetzen ez duenean, zehapenerako eskumena duen organoak hertsapen isunak ezartzea erabaki ahalko du.

2. Hertsapen isunak errepikatu ahalko dira, gutxienez hilabetea iraganik batetik bestera, eta haien zenbatekoa ez da izanzen zehapen gisa ezarritako isunaren zenbatekoaren 100eko 30etik gorakoa. Zenbateko hori honako irizpide hauek kontuan harturik zehaztuko da:

a) Egoera zuzentzeko betebeharra betetzen atzeratzea.

b) Betebeharrak nahita ez betetzea, edo ez-betetzeak behin baino gehiagotan gertatzea.

c) Eragindako kalteen izaera.

3. Norbaitek ordaintzeko betebeharra izan eta ordaintzen ez badu, hertsapen isunak premiamendu bidez eskatu ahalko zaizkio, jakinarazpena egin eta hogeita hamar egun baliodun iraganik.

4. Hertsapen isunak eta ezar litezkeen zehapenak independenteak eta bateragarriak izanzen dira.

91. artikulua. Zehapen osagarriak.

Arau-hauste oso larrietan honakoak ere zehapen gisa metatu ahalko dira:

a) Foru lege honetan aurreikusitako jarduerak betetzeko hurrengo bost urteetarako desgaitzea, eta horrekin batera kasuan kasuko baimen administratiboa edo/eta homologazioa ezeztatzea.

b) Zentroetako zuzendariak zuzendari izateko desgaitzea hurrengo bost urteetarako.

c) Finantzaketa publikoa jasotzeko urtebetetik bost urtera bitarteko eperako desgaitzea.

d) Zerbitzua aldi baterako etetea, osorik edo haren zati bat, gehienez ere urtebetez.

e) Zerbitzua behin betikoz bertan behera uztea, osorik edo haren zati bat; baimen administratiboa eta, halakorik dagoenean, homologazioa ere ezeztatzea ekarriko du horrek berekin.

f) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin kontratatzeko desgaitzea urtebetetik bost urtera bitarteko eperako.

g) Emandako homologazioa galtzea bi urtetik bost urtera bitarteko eperako.

h) Zehapen organoak, behin zehapenak irmo direlarik bide administratiboan, horiei publizitatea ematea erabaki ahalko du pertsona fisiko nahiz juridiko erantzuleen izenak publiko eginez, egindako arau-haustea espresuki adierazirik. Publizita-

tea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egokitzen jotzen diren komunikabideetan eginen da.

92. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Ezarri beharreko zehapenak zehaztu eta mailakatzeko, zehapenak arau-haustetzat jotako egitatearen larritasunari egokitu beharko zaizkio, eta, horretarako, bereziki kontuan hartuko dira irizpide hauek:

a) Norainoko asmo edo arduragabekeria izan den arau-haustea egitean.

b) Sortu diren edozein motatako kalteak eta pertsonentzako nahiz ondasunetarako sortu edo izan den arrisku egoera.

c) Arau-hausteetan berrerortzea edo halakoak behin eta berriz egitea.

d) Arau-haustearen oihartzun ekonomiko eta soziala.

e) Arau-haustea urratutako araudia bere kabuz bete izana, zehapen prozedura abiarazi baino lehen.

f) Arau-haustea edozein bereizkeria mota eragin izana.

2. Arau-haustearen ondorioz lortutako etekina foru lege honetan ezarritako zehapenaren zenbatekoa baino handiagoa denean, zehapenaren zenbatekoa igo eta lortutako etekinaren 100eko 10etik 25era bitarte handiagoa izanen da.

93. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo egin eta biharamunetik hasita.

94. artikulua. Zehapen prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa izanen da, erregelamenduz ezar daitezkeen berezitasunak galarriz gabe.

2. Foru lege horretan zehapenetan aurreikusitako murrizketa aplikatzerik ez da izanen zehapena arau-hauste oso larri batengatik ezartzen denean.

95. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Zehapen prozedura abiarazi aurretik, eta pertsonentzako arrisku egoerak sortu badira, lehenbailehen desagerrarazi edo arindu beharrekoak, organo eskudunak kautelazko neurri hauetako bat hartu ahalko du:

a) Zentroa aldi baterako ixtea, osorik edo haren zati bat, edo zerbitzua nahiz jarduerak, osorik edo haien zati bat, aldi baterako etetea.

b) Erabiltzaile berriak hartzeko debekua aldi baterako.

2. Hartutako kautelazko neurriak zehapen prozedura abiarazten den unean berretsi, aldatu edo kendu beharko dira, hau da, neurriok hartu eta hamabost egun iragan aurretik.

3. Neurri horiek edozein unetan hartu ahalko dira, zehapen prozedurari behin abiarazi delarik, eman daitekeen azken ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko; kasu horretan fidantza bat aurkeztea ere eskatu ahalko da, behin-behineko neurri gisa, egokitu daitekeen isunaren gutxieneko zenbatekoaren adinakoa.

Lehen xedapen gehigarria. Prestazio ekonomikoaren enbargaezintasuna eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestea.

Unean uneko araudi indardunean adieraziko da gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioetatik zein diren enbargaezinak eta zein egonen diren pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsirik.

Bigarren xedapen gehigarria. Eguneko eta gaueko zentroetako prestazioak parekatzea.

8., 85, 86 eta 89. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, eguneko eta gaueko zentroetako prestazioak eta egoitzetako prestazioak parekatu egin dira, betiere haien izaera dela eta xedatutakoa aplikatzekoa zaienean.

Hirugarren xedapen gehigarria. Iruñeko gizarte zerbitzuetako zentroak.

Foru lege honen 32. artikuluan araututako gizarte zerbitzuetako zentroak, Iruñeko gizarte zerbitzuen barrutikoak direnak, Iruñeko Udalaren titularitatekoak izanen dira.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak finantzatzeko dituzten zentro horiek, foru lege honen 51. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, betiere gizarte zerbitzuen plan estrategikoan aurreikusitakoarekin bat baldin badatoz.

Laugarren xedapen gehigarria. Homologazioak berdintzea.

Gizarte zerbitzu homologatuak, menpekotasunari buruzko estatuko legeetan xedatutakoaren ondorioetarako, baimena duten zerbitzuak direla ulertuko da, baina, betiere, aipatutako legeetan baimen hori lortzeko ezartzen diren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Bosgarren xedapen gehigarria. Gizarte zerbitzuen arloko kontratuen exekuzioan errekerimendu sozialak ezartzea.

Nafarroako administrazio publikoek errekerimendu sozialak sartu beharko dituzte, nahitaez, gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten kontratu guztietako administrazio klausula partikularren plequetan; betiere, aplikatzekoak zaizkien kontratuen arloko legeetan ezarritakoari jarraikiz.

Seigarren xedapen gehigarria. Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseiluaren eraketa.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean gehienez ere eratuko da Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseilua.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa sortzea.

Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean sortuko du bertan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Erregistroa.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Gizarte zerbitzuetako zentroak sortzea.

Gizarte zerbitzuetako zentroen ezarpena foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere zortzi urteko epean gauzatuko da, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusitakoarekin bat.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako gizarte zerbitzuen lehen plan estrategikoaren onespena.

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean onetsi eta igorriko du Nafarroako Parlamentura Nafarroako gizarte zerbitzuen lehendabiziko plan estrategikoa.

Hamargarren xedapen gehigarria. Lanpostuak sortzea.

Foru lege honetan aurreikusitako homologazio sistema ezartzeko, gizarte zerbitzuen arloko departamentuan beharrezkoak diren lanpostuak sortuko dira.

Lehen xedapen iragankorra. Oinarrizko gizarte zerbitzuen programen ezarpena.

31. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak eskaintza bermatu beharko du halakoa eman dezakeen gizarte zerbitzuen zentrorik ez den bitartean.

Bigarren xedapen iragankorra. Dauden baimen administratiboak.

Aurreko araudiari jarraikiz emandako baimen administratiboek indarra izanen dute aurrerantzean ere. Halere, foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hiru urteko epean, entitateak arau honen babesean ezarritako baldintza berrietara egokitu beharko dira, bestela emandako baimena galduko baitute.

Hirugarren xedapen iragankorra. Homologazio administratiboa eskatzea.

Foru lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, foru lege honek indarra hartu eta lau urteko epean eduki beharko da homologazio administratiboa.

Laugarren xedapen iragankorra. Eskualdeak.

Erregelamendu bidez gizarte zerbitzuen zonifikazio berria onetsi bitartean, foru lege honek indarra hartzean dauden eskualdeek izanen dute indarra.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako xedapenak.

1. Arau hauek indarrrik gabe geratu dira:

a) Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea.

b) Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea.

c) 9/1990 Foru Legea, azaroaren 13koa, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.

d) Urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretua, oinarrizko gizarte zerbitzuen araubidea ezartzen duena.

e) Foru lege honetan ezarritakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak, indarra izanen du aurrerantzean ere, foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoa ez den guztian.

Azken xedapenetan lehena. Haur eta gazteen arloko aplikazioa.

Haur eta gazteen arloan foru lege honen aplikazioa subsidiarioa izanen da berriazko legerian xedatutakoarekiko.

Azken xedapenetan bigarrena. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru legearen 2. artikuluko 3. idatz-zatiari e) letra gehitu zaio. Hona testua:

“e) Gizarte Zerbitzuen Foru Legean aipatu eta gizarte zerbitzu orokorren zorroan bermatutzat jotzen diren prestazio ekonomikoak, pertsona fisiko-en edo familien bizi premiak asetzeko xedea dutenak.”

Azken xedapenetan hirugarrena. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.

Nafarroako Gobernuak 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen onetsiko du gizarte zerbitzu orokorren zorroa.

Azken xedapenetan laugarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituzten erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Foru Legea, Jokoari buruzkoa.**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Jokoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Jokoari
buruzko Foru Legea**

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENEA

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Xedea, esparrua eta printzipio orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio esparrua

2. artikulua. Printzipio orokorrak.

II. KAPITULUA

Jokoak eta apustuak eta haien arauak

3. artikulua. Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoak.

4. artikulua. Joko eta apustu baimenduak.

5. artikulua. Joko eta apustu debekatuak.

6. artikulua. Joko eta apustu etarako materialak.

7. artikulua. Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistra.

8. artikulua. Plangintza.

9. artikulua. Nafarroako Jokoaren Kontseilua.

10. artikulua. Jokoen publizitatea.

11. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak.

III. KAPITULUA

Jokoak eta apustuak antolatu
eta ustiatzeko araubidea

12. artikulua. Baimena.

13. artikulua. Baimenak eman edo onartzeko modua.

14. artikulua. Baimenen araubidea.

15. artikulua. Bermeak.

16. artikulua. Jokoak eta apustuak antolatu eta ustiatzeko ezgaituak daudenak.

II. TITULUA

Jokoak eta apustuak:
definizioak eta betebeharrak

17. artikulua. Jokoak eta apustuak.

18. artikulua. Joko makinak.

19. artikulua. Apustuak.

20. artikulua. Loteriak eta txartel-jokoak.

21. artikulua. Zozketak eta tonbolak.

22. artikulua. Ausazko konbinazioak.

III. TITULUA

Jokoak eta apustuak egiteko baimenduriko
toki, lokal eta establezimenduak

23. artikulua. Tokiak, lokalak eta establezimenduak.

24. artikulua. Kasinoak.

25. artikulua. Bingo aretoak.

26. artikulua. Joko aretoak.

IV. TITULUA

Baimenen titularrak diren enpresak,
bertako langileak eta jokalariek

I. KAPITULUA

Joko enpresak

27. artikulua. Joko enpresak.

28. artikulua. Jakinarazi beharrak.

29. artikulua. Sozietate moduan antolatzen diren enpresak.

II. KAPITULUA

Joko enpresetako langileak

30. artikulua. Joko enpresetako langileen betebeharrak.

III. KAPITULUA

Jokalariek

31. artikulua. Eskubideak.

32. artikulua. Parte hartzeko debekua.

33. Erreklamazio liburua.

V. TITULUA

Jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola

34. artikulua. Jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola.
35. artikulua. Kontrolatzeko prozedurak.

VI. TITULUA

Zehapenen araubidea

I. KAPITULUA

Zehapenak ezartzeko ahalmena

36. artikulua. Zehapenen eskumena eta araubidea.

II. KAPITULUA

Arau-haustek

37. artikulua. Arau-hauste administratiboak eta haien sailkapena.

III. KAPITULUA

Zehapen motak

38. artikulua. Arau-hauste oso larriak.
39. artikulua. Arau-hauste larriak.
40. artikulua. Arau-hauste arinak.

IV. KAPITULUA

Erantzuleak eta zehapenak

41. artikulua. Arau-hausteen subjektu erantzuleak.
42. artikulua. Zehapenak.
43. artikulua. Beste zehapen osagarri batzuk.

44. artikulua. Zehapenen mailaketa.

45. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

46. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

47. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen inskripzioa.

V. KAPITULUA

Kautelazko neurriak, delituak eta hutsegiteak

48. artikulua. Kautelazko neurriak edo aurreneurriak.

49. artikulua. Arau-hauste penalak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen gehigarri bakarra. Genero edo efektu estankatuak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Indarreko baimenen balioa.

Bigarren xedapen iragankorra. Tramitatzen ari diren zehapen prozedurak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeen araubidea.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Betearazteko eta erregelamenduak emateko gaitasuna.

Azken xedapenetan bigarrena. Indar hartzea.

Jokoari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

I

Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea onetsi zen Nafarroako Foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua 16. idatz-zatiaren arabera kasino, joko eta apustuen arloan Nafarroari dagokion erabateko eskumena garatzeko. Lege hark Nafarroan joko arautzeko esparru egoki bat osatu du luzaz.

II

Norberak jokatu edo ez jokatzeko duen askatasunetik abiaturik garai hartan bezala, egia da joko eta apustuak arautzeko zeuden inguruabarretariko batzuek dirautela gaur egun, bereziki babestea merezi duten balio batzuei eutsi beharrak eta sektorean diharduten interesak aldeztu beharrak. Eskuarki, inguruabar horiek direla-eta aginte publikoen esku-hartzea beharrezkoa da zuzenbideko arau-esparru bat ezartzeko, jardueraren garapen baketsua bermatu, jarduera horri muga batzuk finkatu, hartan parte hartzen duten guztien segurtasun juridikoa defendatu eta haien osasunean edo haien ekonomian kaltea hartzen dutenak babesten dituen.

Bestalde, azken urte hauetan, joko dinamismo handiko sektore ekonomikoa izan da. Berrikuntza teknologikoak, muga ekonomikoen desageritzeak negozioari dakarzkion aukerak, globalizazioa eta informazioaren gizartearen garapena –bereziki, telefoniaren, Interneten eta posta elektronikoen erabileraren ondoriozko aukerak eta telebistako formatu batzuetako praktika– direla eta, jokoak eboluzio arin eta hedakorra izan du, modu eta era berrietara bihurtuz. Modu horiek jokalarien artean arrakasta izan dute berehala. Hainbeste ezen gaur egungo gizartean jokatzeko baliabide eta aukerak askotarikoak eta ezberdinak baitira. Batzuetan, araturik dauden esparruetatik kanpo antolatzen diren joko eta apustu egiazko edo birtualetan parte hartzeko aukera kontuan harturik, zaila da lehen aipatu diren balio eta interesak zaintzea.

III

Ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak indarra izan duen bitartean eskumen hori kudeatzen eta hari dagozkion eskumenak erabiltzen izaniko esperientziagatik, jokoaren araubidea indarra duen Zigor Kodera egokitu beharagatik, joko gero eta zail, nahasi eta sendotuagoa den erreali-

tate bihurtu dela konturatzeagatik, arlo batzuk arautzean eta arautzeko atzeman diren arazoengatik eta enpresen ekintza askatasuna, gure sistema konstituzionalak onetsia, jardueraren kontrol administratiboarekin, beharrezkoa denarekin, bat etorrarazi nahi izateagatik, komeni da gaur egungo lege-esparrua aldatzea, beste bat, segurtasun juridikoa bermatzen duena eta joko gaur egungo egoera sozial eta ekonomikora egokitzeko gutxieneko bide juridikoak arautzen dituena, ezartzearen. Esparru berri horrek enpresen eskaintza eta gizartearen eskaria arautzen ditu, eta berrikuntza teknologiko eta garapen iraunkorraren menpe dagoen arlo baten arauzko eta beharrezko egokitzapenari aurre egiten ahalko dio. Labur bildurik, esparru horrek bide emanen du unean uneko inguruabarrekin bat datorren joko politika arintasunez garatzeko.

IV

Foru lege honek helburu horietarako erantzunak ematen ditu, eta honako egitura dauka: sei titulu, hamaika kapitulu, berrogeita bederati artikululu, xedapen gehigarri bat, bi xedapen indargabetzaile eta azken bi xedapen.

V

“Xedapen orokorrak” deritzon I. tituluan araubidearen xedea, aplikazio esparrua eta printzipio orokorrak zehazten dira. Jardueraren definizio zabal batetik abiatzen da. Gero, denbora-pasa edo josteta hutsak diren jarduerak baztertzen ditu. Izan ere, horietan ez da dirurik eskualdatzen edo, eskualdatuz gero, oihartzun gutxi dute gizartean eta garrantzi gutxi ekonomian, horietan entretenitzea garrantzitsuagoa baita jokalarientzat dirua irabaztea baino eta beraz horietan dihardutenean osasunak edo ekonomiak ez dute kalterik hartzen.

Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoa eta Erregistroa oinarrizko egiturak dira joko baimendu eta debekatuak zehazteko eta joko baimenduak kudeatu eta garatzeko. Hala ere, katalogoaren edukien oinarrizko eta orotariko definiziotik abiaturik, haien zurruntasuna malgutu nahi da. Izan ere, zurruntasun horrek bete-betean jotzen du sektorearen dinamismo handiaren kontra, eta sektorea irekia izatea bilatu nahi da. Labur bildurik, horrek bidea emanen du gaur egun baimendurik dauden joko eta apustuen zerrenda katalogo edo erregistroan biltzeko eta bertan sor litezkeen beste batzuk arintasunez sartzeko, gizartean edo ekonomian duten oihartzun eta garrantziagatik haiek arautzea komenigarritzat jotzen denean.

Titulu berean baimenak emateko oinarritzko araubidea eta haien titular ez izateko edo ezgaitzeko zergatikoak zehazten dira. Alde batetik, kontzeptuak Zigor Kodeari lotuko zaizkio. Bestetik, saihestuko da pertsona juridikoek berehala jokoak edo apustuak antolatu edo ustiatzeko baimena galtzeko aukera, haien bazkide edo partaideetarik baten bat inguruabar haietariko batean dagoenean. Ondorio hori bakarrik sortuko da joko enpresa zuzendu edo administratzeko eginkizun garrantzitsuak esleiturik dauzkatenean, bazkideak izan edo ez.

Halaber, jokoan eta apustuetan erabiltzen diren material eta osagaiei buruzko araubidea eta haien publizitatea zehazten dira. Araubidea aldatzen da. Babesa eta publizitate informatiboa posible izanen dira.

Azkenik, jarduera planifikatzeko irizpideak aipatzen dira. Nafarroako Jokoaren Kontseiluaren sorrera ere mintzagai da. Foru Komunitatean jokoak eta apustuak arautzen eta kudeatzen interesaturik dauden sektore guztiek parte hartzeko organoa da.

VI

II. tituluak “Jokoak eta apustuak: definizioak eta betebeharrak” du izenburu. Araubidearen xede diren joko eta apustuen orotariko definizio zabala biltzen du. Joko eta apustuak Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan zehatz jasoko dira. Definizioan baimentzen ahal diren joko guztiak sartzen dira. Joko makinak, apustuak, loteriak, txartel-jokoak, zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak zehazten dituzten oinarritzko oharren berariazko zehaztapenarekin osatuko da.

VII

III. tituluak “Jokoak eta apustuak egiteko baimenduriko toki, lokal eta establezimenduak” du izenburu. Horretan xedatzen da toki horietan bakarrik bertarako berariaz baimenduriko joko eta apustuak egiten ahalko direla eta, bertan joko makinak paratzeko baimena emanaz gero, enpresa operadoreek bakarrik ustiatzen ahalko dituztela, orain arte bezala.

VIII

IV. tituluak “Baimenen titularrak diren enpresak, bertako langileak eta jokalariek” du izenburu. Bertan bereizten dira, alde batetik, behin betikoz jokoak edo apustuak antolatzen eta ustiatzen jardun nahi duten pertsona fisiko edo juridikoak eta bakarrik aldi baterako eta, bestetik, bolada batez erregelamenduen bidez zehazten diren jokoetariko bat

–ausazko konbinazioak, kasu– antolatu nahi dutenak. Horrenbestez, lehenbizikoek bakarrik antolatu beharko dute joko enpresa gisa eta kasuan kasuko erregistroetan inskribatu. Horrekin batera, honako alderdiak biltzen dira: joko enpresen definizioa, sozietate moduan antolatzen diren enpresen betebeharrak eta horien partaidetza motak, zuzendaritza edo ordezkaritza organoak izendatu baino lehen hori administrazio publikoari jakinarazteko beharra, sozietate horien akzioen edo partaidetzen eskualdatzea ere jakinarazteko beharra, eta bestelako datu batzuk, halaber, administrazio publikoari jakinarazteko beharra. Halaber, jokoak eta apustuak antolatu eta egiteko baimenen titularrak bermeak emateko beharra ezartzen da, eta zer baldintza bete behar dituzten, horien artean, besteak beste, zuzendarien, akziodunen eta joko enpresetan diharduten langileen eta beren familien jardueren mugak, baita erabiltzaile edo jokalarien eskubideak eta debekuak ere.

IX

V. tituluak “Jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola” du izenburu. Bertan jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola arautzen da. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioen artetik eginkizun haiek dagozkienak agintaritzako agentetzat joko dira. Funtzionario horiek egiten dituzten ikuskapen akte egiazkotasun ustea izanen dute eta bertan kontatzen diren egintzetarako frogatuko balioko dute, bestela frogatu ezik. Presa handiko kautelazko neurriak hartzeko eskumena emanen zaie. Azkenik, jokoak eta apustuak kontrolatzeko ezar litezkeen sistema informatiko eta telematikoetako oinarriak finkatzen ditu.

X

Azkenik, VI. tituluak, “Zehapenen araubidea” izenekoak, honakoak biltzen ditu: arau-hauste administratiboaren definizioa, arau-hausteen mailaketa (oso larriak, larriak eta arinak), haien erantzuleen salaketa, zehapenak ezartzeko prozedura eta zehapenen zenbatekoen mailaketa biltzen ditu.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Xedea, esparrua eta printzipio orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio esparrua.

1. Foru lege honen xedea da mota guztietako joko eta apustuak Nafarroako Foru Komunitatean arautzea, haren eskumenera arabera. Haietatik aparte, zuzenean edo zeharka dirua, ondasunak

edo ekonomikoki ebaluatzeako diren eskubideak arriskatu edo eskualdatzen direneko jarduerak ere arautzen dira, ausazko edo ia ausazko prozesuen emaitzetan oinarritzen badira edo gertatzen ahal den edo ez zerbaiten iragarpenean oinarritzen badira, edozein direlarik jokalariek parte hartu eta aukerak hautatzeko duten nahia adierazteko erabiltzen diren modu eta baliabideak eta edozein delarik haien gaitasun edo trebetasunak edo zori hutsak emaitzan duen eragina.

2. Denbora-pasa edo josteta hutseko joko edo apustuak foru lege honen esparrutik kanpo geldituko dira; hain zuzen ere, betebeharrak ekonomikorik sortzen ez dutenak eta, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren arabera gizartearen oihartzun gutxi dutenak edo eginbeharrak ekonomikoei dagokienez garrantzi gutxiak direnak.

2. artikulua. Printzipio orokorrak.

Nafarroako Foru Komunitatean jokoak eta apustuak arautu, antolatu, ustiatu eta egiteko printzipio hauei jarraitu beharko zaie:

a) Hirugarrenei jasan ditzaketan kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei eta ezgaituei.

b) Segurtasun poliziala eta pertsonak eta ondasunak babesteko ardura.

c) Enpresaburuen eta jokalarien segurtasun juridikoa, jokoaren erregulartasuna eta gardentasuna, eta iruzurra debekatzea jokoaren garapenean eta enpresaburuen eta jokalarien jardueran.

d) Sariak pagatzeko bermea.

e) Jokoaren eskaintza gizartearen eskariarekin eta errealitate ekonomikoarekin bat etortzea.

II. KAPITULUA

Jokoak eta apustuak eta haien arauak

3. artikulua. Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoa.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoa arautzea, bertan jokoak sartu eta, bidezko bada, bertatik kentzea, eta haietariko bakoitzari buruzko berariazko erregelamendua onestea.

2. Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan foru lege honetan arautzen direnen ezaugarriak dituzten joko edo apustu guztiak sartuko dira, edozein delarik haiek egiten direneko baliabideak, materialak eta arauak, ausaz aukera batzuk sortzen dituen zoria eta ziurgabetasuna badute eta jokalariek ondoriozko betebeharrak ekonomikokoak beren gain hartzen badituzte.

3. Ez dira Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan sartuko pertsonen eskubideak urratzen ahal dituzten joko edo eskubideak, eta joko edo apustuak arautzeko foru lege honetako 2. artikuluan aipatzen diren printzipio orokorren edo interes publikoaren kontra jotzen dutenak ere ez.

4. artikulua. Joko eta apustu baimenduak.

Joko edo apustu bat baimendu ahal izateko, ezinbesteko betebeharrak izanen da alde aurretik Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan sartzea, non haren izena, haren motak, haren deskripzioa eta hura garatzeko funtsezko arauak zehaztuko baitira eta, bidezko bada, haiek antolatu eta egiteko murriztapenak eta mugak ere bai.

5. artikulua. Joko eta apustu debekatuak.

Nafarroako Joko eta Apustuen Katalogoan sarturik ez dauden joko edo apustuak eta sarturik egonik ere bertan ezarritako baldintza, murriztapenak eta mugetatik aparte egiten direnak lege debekatuak izanen dira eta haiei loturiko dirua, efektuak eta materiala bahituko dira, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zehapenez gain.

6. artikulua. Joko eta apustuetarako materialak.

1. Jokoak eta apustuak betiere alde aurretik homologaturiko ereduarekin bat datozen materialekin egiten dira, salbu eta berariazko erregelamenduetan joko edo apustu batzuei dagokienez bestela xedatu ezik.

2. Arlo honetan eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioeko organoari dagokio joko edo apustuen material, osagai eta tresnak, Nafarroan erabili behar direnak, homologatzea.

7. artikulua. Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroa.

1. Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroak, publizitaterako, ohar batzuk bilduko ditu bere atletan:

a) Jokoen material eta osagaien egileak.

b) Eredu homologatuak.

c) Joko enpresei buruzko eta joko edo apustuak antolatu eta kudeatzeko baimenen titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei buruzko datuak.

d) Joko makinaren operadoreak.

e) Jokoak eta apustuak egiteko baimena duten toki, lokal eta establezimenduak.

f) Joko makinak instalatzeko baimenak.

g) Joko makinak ustiatzeko baimenak.

h) Titulartasun aldaketak.

i) Ireki diren zehapen prozedurak, baita ezarri diren zehapenak ere, behin irmo bilakatu ondoren, eta, orobat, zehapenen ezeztapenak, preskripzio-aldia bukatzen denean.

j) Joko jardueri eta apustuei buruzko beste datu interesgarri batzuk, baita inskribatzen diren datuen aldaketak ere.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroaren antolamendu eta funtzio-namendurako arauak ezarriko ditu.

8. artikulua. Plangintza.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak jokia eta apustuak planifikatzeko ahalmena izanen du, ondoko hauek kontuan harturik: gizarteko errealitatea eta jardueraren eragina, jardueraren ondorio ekonomikoak eta zerga arlokoak, jokia dibertsifikatu beharra eta, azkenik, jokabide monopolistikoak edo lehiaren kontrakoak direnak saihestu beharra. Hori helburu, baimenak emateko irizpideak ezarriko ditu, bai kopuruari dagokionez, bai lurralde banaketari dagokionez, baita lortzeko behar diren baldintza objektiboek dagokienez ere.

9. artikulua. Nafarroako Jokoaren Kontseilua.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Jokoaren Kontseilua eratuko du, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan jokoaren eta apustuen arloko eskumena esleitu duen departamentuari atxikia. Jokoaren eta apustuen arloan aholku eman eta parte hartzeko organoa izanen da eta bertan parte hartuko dute bai lehentxeago aipatutako administrazioaren departamentuak, bai jokoaren eta apustuen arloan eskumena duten beste departamentu batzuek, baita arlo horretan interesa duten enpresa erakunde, sindikatu eta gizarte erakunderik adierazgarrienek ere.

10. artikulua. Jokoen publizitatea.

1. Jokoari edo apustuei buruz eta/edo jokatzeko edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizitatea egiteko eta jarduera horiei babesa emateko, aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpenean egin nahi den kanpainaren edo jardueraren datuak adierazi beharko dira, hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

2. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jarduera debekatu edo baldintzatzeko, jardueraren ondorioz edo jarduerak bultzatutako indarke-riaren ondorioz antolamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei kalte egiten bazaie edo

sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie (adingabeei, ezintasunak dituztenei edo, ahulak izanik, babestu beharreko beste pertsona edo giza-taldee).

11. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak.

Harremanak izateko eta espedienteak tramitatzeko, bide telematiko eta elkarreragileak erabil daitezke, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak ezartzen dituen irizpideei jarraikiz. Horiez gainera, administrazio prozedura erkideari buruzko legedian onartzen diren baliabide orokorrak ere erabil daitezke.

III. KAPITULUA

Jokoak eta apustuak antolatu eta ustiatzeko araubidea

12. artikulua. Baimena

1. Katalogaturik dauden joko eta apustuak antolatu eta ustiatzea, eta, orobat, jokatzeko eta apustuak egiteko lokal edo establezimenduak ireki eta erabiltzea, edo horretarako guneak erabiltzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakundeen esku edo joko enpresen esku egonen da bakar-bakarrik. Joko modalitate jakin batzuetan, hala ezarriz gero, pertsona fisiko edo juridikoek ere egiten ahalko dute, salbuespen gisa eta aldi baterako, baina horretarako, aurretik, kasuan-kasuan gaiaren arabera eskumena duen Foru Komunitateko organoaren administrazio baimena beharko dute.

2. Joko eta apustu modalitate batzuk komunikazio araubidearen menpe jartzen ahalko dira, ekonomian eta gizartean eragin txikiagoa badute, sustatzaileak joko enpresak ez badira eta azken helburua zein den begiratuta.

13. artikulua. Baimenak eman edo onartzeko modua.

1. Baimena lortu nahi dutenek behar bezala eskatu beharko dute, eskaerari erregelamenduz ezarritako dagoen dokumentazio guztia erantsiz. Artikulu honetako 2. artikuluan ezarritakoa aplikatu beharra dagoenean izan ezik, baimena eman edo ukatzeko epea hiru hilabetekoa izanen da. Epe hori ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, interesduna baimena administrazio-isiltasunez ukatu zaiola ulertzeko legitimatua egonen da, deusetan galarazi gabe organo esku-dunak eman beharreko ebazpen adierazia.

2. Foru lege honen 8. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Nafarroako Foru Komunitatean joko jardueraren eta apustuen esparru jakin bateko baimen kopurua murrizten bada, baimenak lehiaketa

publikoaren bidez emanen dira. Kasu horretan, baimena lortu nahi duten interesdun guztiek parte hartu beharko dute lehiaketan, deialdian ezartzen den moduan eta epean. Lehiaketa deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera ebatziko da. Lehiaketa ebatzeko deialdian ezartzen den epea bukatuz gero, interesduna legitimatua izanen da bere eskaera administrazio isilbidez ezetsi dela ulertzeko.

14. artikulua. Baimenen araubidea.

1. Baimenak jardunaldi batera edo batzuetara mugatutako ekintzetarako izan daitezke, edo joko eta apustuen arloan denbora mugatu batean etenik gabe jarduteko (kasua bada, epe hori bukatuta, baimena berritzen ahalko dena) edo epe-mugarik gabe jarduteko.

2. Foru lege honen VI. tituluan ezartzen denaren arabera jartzen diren zehapenak deusetan galarazi gabe, baimenak emateko jartzen diren baldintzak betetzen ez badira, baimenak ezeztatu eta indargabetzen ahalko dira, bai, halaber, baimena eman zeneko garaian gertatu izanez gero baimena ezezteko arrazoia izanen zatekeen arrazoiren bat gerora gertatzen bada. Horrelako kasuetan, titularrak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izanen, ez batean ez bestean.

3. Baimenak ezin dira laga eta ezin dira hirugarren pertsonen bidez ustiatu, eta eskualdaketak ezartzen diren kasuetan eta baldintzetan baizik ez dira onartuko.

4. Joko edo apustuen enpresa edo negozio baten titulartasuna edo joko makinak instalatzeko baimena eskualdatuz gero, titular berriak beretzat hartuko ditu foru lege honetan ezarritakoaren arabera lehengo jabeak zituen betebeharrak.

5. Baimenak honako kasuetan iraugiko dira:

a) Baimena ezeztatu eta zehapena jarriz gero, foru lege honetan ezarritako kasuetan.

b) Baimenak epe-mugara iritsiz gero, deusetan galarazi gabe bidezko luzapenak egitea.

c) Titularrak uko eginez gero, Foru Komunitateko administrazioari jakinaraziz.

d) Administrazio zehapen irmo baten bidez titularra gaitasunik gabe utzi edo establezimendua itxiz gero.

e) Baimena iraugiz gero, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

f) Titularra hil edo haren nortasun juridikoa iraugiz gero, bidezko eskualdaketak galarazi gabe.

g) Epailen epai irmo baten ondorioz, hala erabakitzen bada.

15. artikulua. Bermeak.

1. Joko edo apustuak antolatu eta ustiatzeko baimenen titularrek eta, halaber, jokatzeko eta apustuak egiteko lokalak edo aretoak ireki edo erabiltzeko baimenen titularrek behar den bermeak jarri beharko dituzte eta joko edo apustu bakoitzerako ezartzen diren baldintzak eta betebeharrak bete.

2. Baimen horien titularrek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren aldeko fidantza bat utzi beharko dute, erregelamenduz ezartzen diren baldintzen eta zenbatekoen arabera.

3. Fidantza horiek foru lege honetan ezartzen diren betebeharrak betetzearen pean geldituko dira; batez ere, zehapen araubidearen ondoriozko erantzukizunei eta sarien ordainketari buruz ezarritakoa bete beharko da eta jokoei eta apustuei dagozkien tributu berezien ondoriozko beharkizunak.

4. Fidantzetan eskatzen ahal den gehieneko diru kopuruak eguneraturik egon behar du.

16. artikulua. Jokoak eta apustuak antolatu eta ustiatzeko ezgaituak daudenak.

1. Ondoko egoeraren batean daudenek ezin izanen dute foru lege honetan araututako joko edo apusturik antolatu edo ustiatu, ez eta horretarako behar diren baimenak lortu ere:

a) Eskajeraren egunaren aurreko bost urteko epean, epai irmo baten bidez kondenatua izatea honelako delitu bat egiteagatik: pertsona bat hiltzea, lesioak, askatasun sexualaren kontrako delitua, ondarearen kontrakoa, ordenamendu sozioekonomikoaren kontrakoa, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren kontrakoa edo faltsutasuna.

b) Errehabilitaturik gabe dauden porrot eginak eta, legearen arabera ordainketen etendura edo hartzekodunen konkurtsoa aginduta, kaudimen gabekoak deklaratu direnak edo hartutako betebeharrak guztiak bete ez dituztenak.

c) Azkeneko bost urteotan ebazpen irmo baten bidez zehatuak izatea, jokoaren eta apustuen gaineko tributuen arloko bi arau-hausteren edo gehiagoren ondorioz.

d) Ebazpen irmo baten bidez jokoak edo apustuak antolatu edo ustiatzeko desgaitzuntza ekarri duen zehapena jaso dutenak, desgaitzuntzaldiak iraun bitartean.

2. Baimena eman edo onartu ondoren ezgaitasun egoeraren batean sartuz gero, baimena galduko da eta ezin izanen da hurrengo bost urteetan berriz eskatu.

3. Artikulu honetan bildutakoa pertsona juridikoei ere aplikatuko zaie, baldin eta horien administratzaile edo ahalordedunak, Zuzendaritza Batzordeko edo Administrazio Kontseiluko kideak edo kudeaketako, zuzendaritzako edo administrazioko kargudunak edo zuzendaritzako beste organo batzuetako kideak halako egoeraren batean baldin badaude, joko enpresen akziodun edo parte-hartzaile izan ala ez izan.

II. TITULUA

Jokoak eta apustuak: definizioak eta betebeharrak

17. artikulua. Jokoak eta apustuak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, joko edo apustutzat hartuko dira ondoko baliabide hauek erabiliz garatzen direnak, jokalaria jokalekuan egon ala ez, eta are informatika edo baliabide telematiko edo elkarreragileen bidez egiten direnak ere: alternatibak zuzenean nahiz zeharka hautatzea, inprimakiak betetzea, kartoia, bileteak, txartelak edo joko paperak erosi edo hautatzea edo, kasuan kasuko ondare eskualdaketen oinarri diren aurreikuspenen, alderaketen edo konparaketen emaitza ausaz emateko balio duten makina, erruleta, taula, karta, dado, pilota, bola, xafla, fitxa edo beste elementu erreal edo birtual batzuk erabiltzea jokoaren euskarri gisara.

2. Ondorio horietarako, joko publikoak edo titulartasun publikokoak dira administrazio publikoak edo haren menpeko erakundeek antolatu edo ustiatzen dituzten joko eta apustuak, eta joko pribatuak edo titulartasun pribatukoak, berriz, partikularrek antolatu eta ustiatzen dituztenak, baimena emateko erabiltzen diren teknikak kontuan hartu gabe.

18. artikulua. Joko makinak.

1. Honako hauek hartzen dira joko makinatzat: erregelamenduz ezarriko diren ezaugarri eta mugak betez, partidaren prezioaren truke, makina erabili eta, jokoaren programaren edo ausazko sistema baten bidez, sari bat jasotzeko aukera ematen duten mekanismo eta gailuak, eskuzkoak edo automatikoak.

2. Joko makinatzat hartuko dira, orobat, joko, apustu, enbete edo zorizko osagairen bat izateagatik halakotzat jotzen direnak, betiere hurrengo idatz-zatian aipatzen diren salbuespenetan sartuta ez badaude.

3. Foru lege honetatik kanpo daude salmenta makinak, baldin eta erosleak aurretik aukeratzen dituen produktuak, salgaiak edo beste zerbitzu jakin batzuk mekanikoki trukatu edo saldu besterik egiten ez badute, betiere baldin eta jarritako diruak makinan bertan produktu horietarako adierazten den prezioarekin bat egiten badu eta produktua zuzenean ateratzen bada, inolako baldintzaren, aposturen, ausazko konbinazioren edo zorizko jokoren pean egon gabe, eta bai josteta hutseko makinak ere, ez badute inolako saririk ematen, ez zuzenean, ez zeharka, erabilera denbora errepikatzeke aukeraz gainera.

4. Nafarroako Gobernuak joko makinek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu, bai eta, behar izanez gero, toki, lokal edo establezimenduetan jartzeko baldintzak ere.

19. artikulua. Apustuak.

Apustutzat hartzen dira ondasunak, eskubideak edo dirua arriskatzen dituzten jarduerak, zalan-tzazko edo ausazko bukaera duen eta aurretik adostuta dagoen gertakari baten emaitza asmatzearen edo ez asmatzearen arabera antolatzen direnak.

20. artikulua. Loteriak eta txartel-jokoak.

1. Loteria zozketa batean oinarritzen den joko da, non zenbaki jakin bat edo gehiago ausaz atera edo finkatzen den. Zenbaki horiekin guztiekin edo batzuekin bat datorren numerazioa duen bilete edo txartelen jabeek diruzko sari bat jasotzen dute, aurretik onetsitako sari-plan baten arabera, zozketaren egunarekin batera jokoaren esku-orrietan eta billete edo txarteletan aditzera eman beharko dena.

2. Txartel-jokoak dira salneurri baten truke erosleari egokitu zaion diruzko saria –halakorik bada– berariaz erakusten duten txartelak erosiz egiten direnak. Saria ezezaguna izanen da denontzat, txartela ireki edo eskuz karraskatzen den arte. Joko mota hau bakarrik egin daiteke edo, bestela, aurretik adostuta dagoen beste batekin konbinatuz, eta betiere txartelaren salneurria eta litezkeen sariak adierazi beharko dira.

21. artikulua. Zozketak eta tonbolak.

1. Zozketa salneurri jakin baten truke joko paperak hartu edo erosi dituztenen artean ondasun edo eskubideak zozketatzen dituen joko da, gero diruz trukatu ezin direnak.

2. Tonbolak askotariko gauzen zozketak dira. Sariak momentuan jasotzekoak izan daitezke, edo hainbat puntu batu ondoren, edo geroko zozketa batean.

22. artikulua. Ausazko konbinazioak.

Ausazko konbinazioak beti marketineko operazioetan edo merkatuko produktu batzuen kontsumoa sustatzeko kanpainetan egiten diren jokoak dira, eta honetan oinarritzen dira: elementu jakin batzuen konbinazioak epe jakin batean osatzea. Konbinazioen elementuak aurretik zehaztuko dira edo ausaz aterako dira, eta jokalariei iragarri edo helarazi beharko zaizkie, zeinahi bide erabiliz. Konbinazioa zozketaren arauetan ezarri bezala osatuz gero, jokalariek zuzeneko sari bat jasoko dute edo hura esleitzeko zozketa batean hartuko dute parte, onesten diren araei jarraikiz.

III. TITULUA**Jokoak eta apustuak egiteko baimenduriko toki, lokal eta establezimenduak**

23. artikulua. Tokiak, lokalak eta establezimenduak.

1. Foru lege honetan biltzen diren xedapenak bertan arautzen diren joko edo apustuak egiten diren toki, lokal eta establezimendu guztietan aplikatuko dira.

2. Joko eta apustu baimenduak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baimenduriko toki, lokal eta establezimenduetan baizik ezin dira egin, hots, kasinoetan, bingo aretoetan, joko aretoetan eta, foru lege honen 12. artikulua araberak, erregelamenduz ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztenetan, kasuan kasuko baimenean biltzen diren zehaztapenekin betiere. Areto horietan baimendu diren joko eta apustuak egiten dira, ez besterik. Era berean, debekatuta dago toki, lokal edo establezimendu horietan edo horietatik beste arau batzuen bidez baimenduriko joko edo apustuak egin edo ustiatzeko lanetan lagundu edo parte hartzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren baimenik izan gabe.

3. Baimenduriko toki, lokal edo establezimenduetako joko makinak horrelako makinaren enpresa operadoreek baizik ezin dituzte ustiatu.

24. artikulua. Kasinoak.

1. Batik bat, ausazko joko eksklusiboak egiteko lokalak dira, non batzuetan, zerbait pagatuta, beste ikuskizun edo josteta jarduera osagarri batzuetan parte hartzeko aukera dagoen.

2. Kasinoak irekitzeko baimenak ematea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dago, berak ezartzen dituen baldintzetan.

3. Kasinoak baimendu aurretik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak hango plangin-

tza onartu behar du, foru lege honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

25. artikulua. Bingo aretoak.

Bingo aretoak bingo izeneko loteria jokatzeko lokalak dira.

26. artikulua. Joko aretoak.

Joko aretoak joko makinak ustiatzen dituzten lokalak dira.

IV. TITULUA**Baimenen titularrak diren enpresak, bertako langileak eta jokalariek****I. KAPITULUA**
Joko enpresak**27. artikulua.** Joko enpresak.

Foru lege honen ondorioetarako, joko enpresak dira, merkataritza eta tributu arloetako arauetan eskatzen diren betekizunak betetzeaz gainera, Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroan inskribaturik egon eta, nor bere izenean, foru lege honetan araututako joko edo apusturen bat antolatu eta ustiatzeko enpresa jardueretan aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoak.

28. artikulua. Jakinarazi beharrak.

1. Joko enpresak, datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzeaz gainera, enpresan lan egiten duten pertsonen gainean erregelamenduz ezartzen diren datuak jakinarazi beharko dizkiote Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, bai eta kontrol, koordinazio eta estatistika arloetan dagozkion eginkizunak betetze aldera hark eskatzen dion gainerako informazioa ere.

2. Era berean, joko enpresetako ordezkariak eta zuzendaritza organoetan gertatzen diren aldaketak berri eman beharko diote Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, erregelamenduz ezartzen den epean.

29. artikulua. Sozietate moduan antolatzen diren enpresak.

1. Merkataritza sozietate gisa eratzen diren joko enpresak kapital osoa ordainduta izan beharko dute, zenbatekoei eta baldintzei dagokienez erregelamenduz ezarritako den bezala. Kapital hori sozietatearen partaidetzetan edo akzio izendunetan banatuko da eta sozietatearen estatutuetan berariaz adierazi beharko dira jokoaren sektorean xedatutako jarduerak.

2. Joko enpresen akzio edo partaidetzak esku aldatu aurretik, Nafarroako Foru Komunitateko

administrazioaren organo eskudunari idatziz jakinarazi beharko zaio.

II. KAPITULUA

Joko enpresetako langileak

30. artikulua. Joko enpresetako langileen betebeharrak.

Jokoak edo apustuak ustiatu eta kudeatzeko sektorean lanbide jardueraren bat egiten duten pertsonak, joko enpresa baten akziodun edo partaide izan ala ez izan, betebeharrak izan behar dituzte:

a) Zigor-aurrekaririk ez izatea foru lege honen 16.1.a) artikuluan adierazitako egoeraren bat dela kausa.

b) Lanbide jarduera horretan hasi aurreko bi urteko epean, foru lege honetan larri edo oso larritzat hartutako arau-hauste bat dela kausa, ebazpen irmo baten bidez administrazio zehapenik jaso gabea izatea.

III. KAPITULUA

Jokalaria

31. artikulua. Eskubideak.

1. Jokalariak eskubidea dute begirunezko eta adeitasunezko tratua izateko, jokoaren eta apustuen garapenari buruz behar dituzten argibide guztiak jasotzeko, indarpean edo mehatxupean aritu gabe libreki jokatzeko eta jokoak garbitasunez eta erregelamenduei jarraikiz egiteko.

2. Halaber, jokalariek eskubidea dute sariak kobratzeko, jasotzeko eskubidea sortu eta berehala.

32. artikulua. Parte hartzeko debekuak.

1. Joko eta apustueterako baimenen enpresa titularreko jabeak, akziodunek eta partaideak ezin izan behar dute inola ere joko eta apustu horietan parte hartu, ezta enpresetako zuzendaritza taldekoak eta enplegatuek, haien ezkontideak eta lehen eta bigarren mailako aurreko ahaideak eta ondorengoak ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak joko aretoetara sartzeko debekatzen ahalko die foru lege honen xedapenak hautsi eta zehapena jaso duten pertsonak eta beren borondatez hala eskatzen dutenei, debeku hori kentzeko libreki eskatzen duten arte.

3. Joko aretoetara sartzeko debekatuko zaie adingabekoei, horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak dituzten pertsonak eta armak edo arma gisa erabil daitezkeen objektuekin sartu

nahi dutenei. Pertsona horiek guztiak ezin izan behar dute jokatu, saria duten joko makinak erabili eta apustuetan parte hartu.

4. Orobat, joko aretoetara sartzeko debekua izan behar du epailearen erabakiaz horrela ezarrita duten pertsonak, hala nola ezgai, zarrastel edo maulazko porrotaren errudun deklaratu direnak, birgaitzen ez diren bitartean.

5. Joko establezimenduen titularrek, joko aretoetara sartzeko artikulua honetan aipatutakoak ez bezalako baldintza eta debekuak ezarri nahi izanez gero, horretarako baimena eskatu beharko diote Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organo eskudunari.

6. Joko aretoek bisitariak onartzeko kontrol-sistemak ezarri beharko dituzte erregelamendu bidez finkatzen diren kasu eta baldintzetan.

33. artikulua. Erreklamazio liburuak.

1. Jokatzeko baimena duten establezimenduetan, erreklamazio liburu bat egonen da jokalarien eta jokoak eta apustuak ikuskatu eta kontrolatzeko ardura duten funtzionario publikoen eskura.

2. Liburu horretan jasotako erreklamazioak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan jokoaren eta apustuen arloko eskumenak dituzten organoari igorriko zaizkio, horretarako ezartzen den epean.

V. TITULUA

Jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola

34. artikulua. Jokoen eta apustuen ikuskapena eta kontrola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan zein departamentuk dituen kasino, joko eta apustuen arloko eskumenak, horrexek izan behar du jokoari eta apustuei loturiko jarduerak ikuskatu eta kontrolatzeko ardura eta, beraz, horiek aztertu eta egiaztatzea.

2. Foru Komunitatearen esparruan jokoak eta apustuak ikuskatu eta kontrolatzeko agindua duten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren funtzionarioak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, eta, hortaz, indarra duen legeriak ematen dien babesa izan behar dute. Gainera, ahalmena izan behar dute jokoaren arloan indarra duten arauak betetzen direla ikuskatu eta zaintzeko, hala nola joko areto, lokal eta establezimenduak, makinak, liburuak eta agiriak aztertu eta beren lana hobeki burutu eta arau-hausteen aktak egiteko balio dezakeen informazioa jasotzeko.

3. Agintea aitortu zaien funtzionarioek emandako ikuskapen aktetan jasotzen diren gertaerei berezko egia eta froga-indarra aitortuko zaie, besterik frogatzen ez den artean.

4. Esku hartzen duten agintaritzaren agenteek baimendu gabeko joko eta apustuetan aritzeko joko makinak, materialak eta elementuak prezintatu, bahitu eta gordailatzeko ahalmena izanen dute, kautelazko neurri premiazko gisara. Zehapen-espeditentea hasteko eskumena duen organoak neurri hori berretsi beharko du, hartzen denetik hasita hamar egun balioduneko epean.

5. Dagozkion baimenen edo establezimenduen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, haien legezko ordezkariak, eta, azken batean, ikuskapena egiten denean jardueren ardura duten langileak behartuta egonen dira ikuskatzaileei eta haien laguntzaileei erraztasunak emateko, lokaletara eta bertako gela guztietara sartu eta ikuskapen lana egiteko behar diren liburu, erregistro eta dokumentuak azter ditzaten.

35. artikulua. Kontrolatzeko prozedurak.

Datu pertsonalak babestearen gainean indar duten legerian ezarritakoa bete beharra galarazi gabe, eta foru lege honetan eta hura garatzeko araudietan agindutakoa betetzen dela bermatzeko ezartzen diren kontrol neurriak osatzeko, informatika eta telematika bidezko loturak jartzen ahalko dira datuak transmititzeko.

VI. TITULUA

Zehapenen araubidea

I. KAPITULUA

Zehatzeko ahalmena

36. artikulua. Zehapenen eskumena eta araubidea.

1. Jokoaren eta apustuen arloko zehapenak jartzeko ahalmena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio.

2. Zehapen prozedura hasi eta zehapenak jartzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan jokoaren eta apustuen arloko eskumenak dituen departamentuari dagokio.

3. Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan aurreikusten ez den orotan, zehatzeko ahalmena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoaren arabera izan da.

II. KAPITULUA

Arau-haustekak

37. artikulua. Arau-hauste administratiboak eta haien sailkapena.

1. Jokoaren eta apustuen arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan ezarritako ekintzak eta omisioak, baita zabarkeria hutsezkoak badira ere.

2. Jokoaren eta apustuen arloko arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

III. KAPITULUA

Arau-hausteen motak

38. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Indarra duen legeria betetzen ez duten joko elementuak fabrikatu, biltegitatu, banatu, merkatu-ratu, saldu, instalatu edo ustiatzea.

b) Joko edo apustu debekatuak edo behar den administrazio baimena ez dutenak antolatu, ustiatu edo egitea, hala nola horiek baimenik ez duten lokaletan edo toki baimenduetatik kanpo antolatu, ustiatu edo egitea.

c) Joko makinak edo elementuak instalatu edo ustiatzea behar den baimena izan gabe edo baimendutako kopurua gandituta.

d) Informazioak ez ematea edo gezurrezko datuak nahiz agiriak aurkeztea, baimena lortzearen.

e) Emandako baimenak eskuordetu edo laga-tzea, foru lege honetan eta legea garatzeko xedapenetan finkatutako baldintzak bete gabe.

f) Baimendutako apustuen edo sarien mugak aldatzea.

g) Homologatu edo baimendu gabeko joko makina zein elementuak erabiltzea, hala nola jokatze materiala iruzurrez ordeztzea.

h) Jokoak edo apustuak manipulatzeko jokalarien, apustu-egileen nahiz Nafarroako Ogasun Publikoaren kalterako.

i) Jokalari edo apustu-egileei irabazitako diru kopurua edo haren zati bat ez ematea.

j) Jokoak egiten diren areto, lokal edo establezimenduetan, joko edo apustuen baimenen titular, antolatzaile edo ustiatzaile diren enpresek, haien zerbitzuko langileek, establezimenduen zuzendaritzako taldekideek nahiz enplegatuek indarkeriaz, koakzioaz eta larderiez tratatzea jokalariek.

k) Jokoak egiten diren areto, lokal edo establezimenduetan, joko edo apustuen baimenen titular, antolatzaile edo ustiatzaile diren enpresek, haien zerbitzuko langileek, establezimenduen zuzendaritzako taldekideek nahiz enplegatuek jokalariei eta apustu-egileei maileguak edo kredituak ematea, edo eman dakizkiela baimentzea.

l) Langileek eta zuzendaritzako kideek eta jokoa kudeatu, antolatu eta ustiatzen duten enpresa edo entitateetako akziodun eta partaidetzadunek, jokalaria gisa, zuzenean edo beste pertsona batzuen bidez, enpresa horiek kudeatu edo ustiatzen duten jokoan parte hartzea, baita haien ezkontideek eta lerro zuzeneko lehen graduako aurrekoek eta ondorengoek ere.

m) Adingabekoei jokoak eta apustuak egiteko baimena ematea.

n) Baimenik ez duten pertsonen jokatzeko kartoiak, txartelak, boletoak edo billeteak saltzea, hala nola baimendutakoaz beste prezioan saltzea.

ñ) Jokoen eta apustuen edo horiek egiten diren lokal edo establezimenduen publizitatea egitea, hori debekaturik badago, edo, baimenduta egonik, ezarritako mugetatik at egitea.

o) Foru lege honetan ezarritako arauak betetzen direla bermatzeko hartutako kontrol neurriak ez betetzea.

p) Bi arau-hauste larriengatik administrazio bideko zehapen irmotik bi urte igaro baino lehen beste arau-hauste larri bat egitea.

39. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Baimenik gabeko lokaletan nahiz baimenik ez duten pertsonen jokoak edo apustuak egiteko baimena ematea, berariazkoa edo isilbidezkoa; orobat, lokal horietan baimenik izan gabe joko makinak edo elementuak jarri eta ustiatzea edo baimendutakoak baino gehiago jartzea.

b) Baimendutako joko edo apustuak bestelako esparruetan ustiatzen laguntzea, horretarako baimenik ez duten lokaletan edo lokaletatik aritzeko bidea emanez.

c) Beharrezko baimenak emateko erabilitako baldintzak eta arauak haustea.

d) Foru lege honetan eta garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera debekaturik duten pertsonen joko aretoetan sartzeko baimena ematea.

e) Joko enpresetako akziodunen edo sozietateko partaidetzaren aldaketen berririk ez ematea horiek egin aurretik.

f) Joko enpresen ordezkartzako edo zuzendaritzako organoen aldaketen berririk ez ematea horretarako epean.

g) Ezarritako mugetatik behera gutxitzea joko edo apustuarako sozietateen kapitala edo enpresen fidantzak, bai eta administrazioari abisu eman gabe soziateko akzioen edo partaidetzen edozein transferentzia egitea ere.

h) Baimenik gabe Katalogoko jokoak erabiltzea salmenta sustapenetan.

i) Agintaritzaren agenteen nahiz horretarako gaiturik dauden funtzionarioen ikuskapen, kontrol eta zainketa jardueri uko egitea edo horiek eragozte.

j) Organo eskudunei jokoak eta apustuak kontrolatzeko behar den informazioa ez ematea.

k) Agindutako liburuak, dokumentazioa eta euskarri informatikoak ez izatea edo gaizki eramatea. Orobat, erregelamenduaren arabera sarrera erregistroa egin behar duten joko aretoetara joaten diren pertsonen fitxategiak edo euskarri informatikoak ez izatea edo gaizki eramatea.

l) Foru lege honen eta legea garatzeko xedapenen arabera eskatzen ahal den agiririk ez gordezea lokalean.

m) Joko makinak eskualdatzea behar den baimena izan gabe.

n) Joko establezimenduan eta baimendutako makinetan ez erakustea, zehazten diren tokietan, foru lege honetan ezarritako baimenen ziurtagiriak, hala nola legea garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen diren bestelako agiriak.

ñ) Ordaindu ezin izan diren sariak Nafarroako Ogasun Publikoaren esku ez uztea.

o) Baimendu gabeko jokoetan aritzea jokalaria gisa.

p) Jokoan eta apustuetan aritzeko baimendutako areto, lokal eta establezimenduetan erreklamazio orririk ez izatea.

q) Jokoaren eta apustuen arloko eskumenak dituen organoari erreklamazioak ez igortzea erregelamendu bidez ezarritako epean.

r) Urtebeteko epean, bi arau-hauste arinengatik administrazio bidean zehapen irmoa jaso eta beste arau-hauste arin bat egitea.

40. artikulua. Arau-hauste arinak.

Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan ezarritako baldintzak edo debekuak ez betetzea ekartzen duten ekintzak nahiz omisioak, arau-hauste oso larriak edo larriak ez badira.

IV. KAPITULUA

Erantzuleak eta zehapenak

41. artikulua. Arau-hausteen subjektu erantzuleak.

1. Foru lege honetan araututako arau-hausteen erantzuleak horien egileak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak izan.

2. Baimenaren titularra den joko enpresako zuzendaritza taldekideek eta administrariak, hala nola lokal edo establezimendu horien titularren enplegatuek arau-hausterik eginez gero jokoan edo apustuetan aritzeko areto, lokal edo establezimenduetan nahiz joko makinak dauden lokaletan, horien zerbitzuak kontratatatu dituzten pertsonak edo entitateak ere erantzule solidarioak izanen dira.

42. artikulua. Zehapenak.

1. Aurreko artikuluetan sailkaturiko arau-hausteengatik ondoko diru-isunak jasotzen ahal dira:

a) Arau-hauste oso larriak, hogeita hamar mila eurotik seiheun milara bitarte.

b) Larriak, hiru mila eurotik hogeita hamar milara bitarte.

c) Arinak, hirurogei eurotik hiru milara bitarte.

2. Nafarroako Gobernuak isunen zenbatekoa urtero berrikusten ahalko du, egoera ekonomikora egokitzeko.

3. Ezin izanen da, inolaz ere, arau-haustearen ondorioz ateratzen den etekina isuna baino handiagoa izan. Horrelakoetan, zilegi izanen da isuna handitzea, lortutako etekina halako bi egin arte.

43. artikulua. Beste zehapen osagarri batzuk.

1. Arau-hauste oso larrien kasuan, eta kontuan harturik haien inguruko gorabeherak, isunaz aparte ondoko zehapen osagarriak jartzen ahalko dira:

a) Arau-hausleak eskuratutako baimen guztiak ezeztatzea, eta behin betikoz galtzea joko eta apustuak antolatu eta ustiatzeko gaikuntza, foru lege honen 16. artikuluan ezarri bezala.

b) Jokoan eta apustuetan aritzeko lokal eta establezimenduak behin betikoz itxi edo ezgaitzea.

c) Jokoak edo apustuak ustiatu edo jokoan nahiz apustuetan aritzeko lokalak irekitzeko arau-hausleak lortutako baimenak aldi batez etetea, bost urtez gehienez.

d) Jokoa eta apustuak antolatu eta ustiatzeko aldi batez ezgaitzea, foru lege honen 16. artikuluan ezarri bezala, bost urtez gehienez.

e) Jokoan eta apustuetan aritzeko lokala edo establezimendua aldi batez itxi edo ezgaitzea, bost urtez gehienez.

f) Jokoan eta apustuetan aritzeko enpresa, toki, lokal eta establezimenduetan lan egiteko aldi batez ezgaitzea, bost urtez gehienez.

g) Joko lokaletara sartzeko debekua.

h) Arau-haustearen makinak, materialak edo elementuak konfiskatu, gordailatu edo, zehapena irmoa denean, haiek desegin edo baliogabetzea.

2. Arau-hauste larrien kasuan, eta kontuan harturik haien inguruko gorabeherak, isunaz aparte ondoko neurri osagarriak jartzen ahalko dira:

a) Jokoak edo apustuak ustiatu edo jokoan nahiz apustuetan aritzeko lokalak irekitzeko arau-hausleak lortutako baimenak aldi batez etetea, urtebetez gehienez.

b) Jokoa eta apustuak antolatu eta ustiatzeko aldi batez ezgaitzea, foru lege honen 16. artikuluan ezarri bezala.

c) Jokoan eta apustuetan aritzeko lokala edo establezimendua aldi batez itxi edo ezgaitzea, urtebetez gehienez.

d) Jokoan eta apustuetan aritzeko enpresa, toki, lokal eta establezimenduetan lan egiteko aldi batez ezgaitzea, urtebetez gehienez.

e) Joko lokaletara sartzeko debekua.

f) Arau-haustearen makinak, materialak edo elementuak konfiskatu, gordailatu edo, zehapena irmoa denean, haiek desegin edo baliogabetzea.

3. Establezimendu baten jarduera nagusia ez bada joko, ezin izanen da hura ixtea ebatzi, baina kasu horretan ezgaitze-zehapena ezartzen ahalko da, eta, hortaz, bertan joko eta apustuak egiteko debekua ezarri, artikuluan honetan aipatutako baldintza eta epeetan.

44. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Zehapenak mailakatzeko, kontuan hartuko dira arau-haustea sortu duten ekintzen ezaugarriak eta kasuko gorabehera pertsonalak edo materialak, bereziki arau-hausleak nahita egin duen ala ez, sortutako kaltea, ekintzaren ondorio sozialak eta ekonomikoak eta behin baino gehiagotan egin diren. Betiere, arau-haustearen eta zehapenaren zenbatekoaren eta ondorioen arteko proportzionaltasun irizpideari jarraikiz jokatu da.

2. Isunaz gain, arau-hauste bat egiteak berekin dakar Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari edo kaltetuei bidegabe eskuratutako dirua itzuli beharra.

45. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso larriek hiru urteren buruan preskribatuko dute, larriek bi urteren buruan eta arinek sei hilabeteren buruan.

2. Preskripzio epea arau-haustea egiten den egunean hasiko da zenbatzen, eta zehapen prozedura hasten denean eten eginen da, interesduna horren jakitun bada.

46. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso larriengatiko zehapenek hiru urteren buruan preskribatuko dute, larriek bi urteren buruan eta arinek sei hilabeteren buruan.

2. Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

47. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen inskripzioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, ofizioz, arau-haustea eta zehapenak Nafarroako Jokoaren eta Apustuen Erregistroan inskribatuko ditu, dagokien atalean.

2. Halaber, jarritako zehapenen preskripzioa ere Nafarroako Jokoaren eta Apustuen Erregistroan jasoko da, behin foru lege honen 46. artikuluan ezarritako epeak iragandakoan.

V. KAPITULUA**Kautelazko neurriak,
delituak eta hutsegiteak****48. artikulua.** Kautelazko neurriak edo aurreneurriak.

Prozedura ebazteko eskumena duen organoak ahalmena izanen du noiznahi behin-behineko neurri batzuk ezartzeko, zertarako eta geroko ebazpena eragingarria izanen dela eta prozedura ongi bukatuko dela bermatzeko, interes orokorra defendatzeko, arau-haustearen ondorioak galarazteko eta, betiere, legeak betetzen direla bermatzeko. Besteak beste, ondoko behin-behineko neurriak hartzen ahalko dira:

- a) Jarduera guztiz edo partez etetea.
- b) Zentro, zerbitzu, establezimendu edo instalazioak ixtea.
- c) Jokoa aritzeko materialak prezintatu, gordailatu edo bahitzea.
- d) Fidantza galdatzea.

Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesdunari entzunaldia emanen zaio, gutxienez hamar egun baliodunetz.

49. artikulua. Arau-hauste penalak.

Zehapen prozedura baten tramitazioan delitua edo hutsegitea izan daitekeen egintzarik antzematen baldin bada, kasua aztertzen ari den administrazio organoak horren berri emanen dio dagokion organo judizialari edo Ministerio Fiskalari, eta administrazio prozedura etenen du, epai irmoa edo prozesua bukatzen duen ebazpena ematen den arte. Deliturik edo hutsegiterik ez dagoela erabakitzen bada, jarraipena emanen zaio zehapen espedienteari, auzitegietan frogatutzat eman diren egintzetan oinarriturik, ezer frogatutzat eman bada.

Xedapen gehigarri bakarra. Genero edo efektu estankatuak.

Bingo kartoiak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baimendutako jokoetarako inprimakiak, billeteak, txartelak edo paperak egin, banatu eta ematea, bestelako agindurik ematen ez den bitartean, administrazio horri dagokio monopolio araubidean. Material hori genero edo efektu estankatutzat joko da, kontrabandoari buruzko legeriaren ondorioetarako.

Lehen xedapen iragankorra. Indarreko baimenen balioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako baimenek indarra izanen dute haietan ezarritako epea bukatu arte.

Bigarren xedapen iragankorra. Tramitatzen ari diren zehapen prozedurak.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako zehapen prozedurak lehengo araudiei jarraikiz tramitatuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeak.

Indarrik gabe uzten dira Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoaren aurkako arau guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Betearazteko eta erregelamenduak emateko gaitasuna.

Foru lege honek gaia dela-eta eskudun den kontseilariari zuzenean ematen dizkion eskurantzak galarazi gabe, gainerako aferetan ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetan hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Eusko Alkartasuna, Aralar eta Askotarikoa parlamentu-taldeek 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea igorri da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar eta Eusko Alkartasuna parlamentutaldeen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea igorri da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, Tafallatik Zangozara doan NA-132 errepideko AP-15 autobiderako lotuneari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko azaroaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Erabakia, Tafallatik Zangozara doan NA-132 errepideko AP-15 autobiderako lotuneari buruzkoa." Aipatu mozioa 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.


Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia, Tafallatik Zangozara doan NA-132 errepideko AP-15 autobiderako lotuneari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren azterketak egin ditzan eta, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, errepideei buruzko plan berriari Tafallatik Zangozara doan NA-132 errepideko AP-15 autobiderako lotunea sar dezan.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	